

AJA

ANTOLAKUNTZA ETA

JARDUERA ARUADIA



AURKIBIDEA

1. IKASTETXEKO ORGANOAK.....	3
1.1. Zuzendaritza organoak.....	3
1.1.1. Batzar organoak.....	3
1.1.2. Lagun Bakarreko organoak.....	8
1.2. Parte hartzeko eta elkar lanerako organoak.....	10
1.2.1. Parte hartzeko organoak: Gurasoen batzarra.....	10
1.2.2. Elkarlanerako organoak: Gurasoen elkarteak.....	10
1.3. Pedagogia koordinaketarako organoak.....	11
1.3.1. Irakasleen klaustroa.....	11
1.3.2. Etapa/ziklo/mailetako irakastaldeak.....	13
1.3.3. Pedagogia Batzordea.....	15
1.3.4. Hezkuntza zerbitzuak.....	15
1.3.5. Eskola zerbitzuak.....	16
2. ESKOLA JARDUERARAKO ARAUAK.....	17
2.1. Irakasleentzako arauak.....	17
2.1.1. Irakasleen eskubideak.....	18
2.1.2. Irakasleen betebeharrak.....	19
2.2. Ikasleentzako arauak.....	21
2.2.1. Ikasleen eskubideak.....	22

2.2.2. Ikasleen betebaharrak.....	27
2.2.3. Desegokiak eta aurkakoak diren nahiz bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak eta horien zuzenketa.....	30
2.2.3.1. Xedapen orokorrak.....	30
2.2.3.2. Jokabide-motak.....	31
2.2.3.3. Neurri zuzentzaile hezitzaileak.....	34
2.2.4. Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak.....	38
2.2.5. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak.....	41
2.3. Gurasoentzako arauak.....	53
2.4. Irakasleak ez diren langileentzako arauak.....	56
2.5. Elkarbizitzarako arauak.....	57
2.6. Lehen Hezkuntzako testuliburuaren kudeaketa solidarioaren programari buruzko arauak.....	59
2.7. Eskuko telefonoak eta bestelako tresna elektrikoak erabiltzaileari buruzko arauak	61
2.8. Ordenagailu eramangarriak erabiltzeko arauak eta ikasleria internetenseguru sartuko dela bermatzeko prozedura.....	62
2.9. Liburutegia erabiltzeko arauak	63
2.10. Ebaluaketarako eta promoziorako arauak.....	63
2.11. Ikasleen ekintza osagarri eta bereziei buruzko arauak.....	64
2.12. Segurtasun eta higiene arauak.....	64
3. AJA ONARTZEKO ETA ALDATZEKO PROZEDURA.....	66
4. ERANSKINAK.....	67
I. Eranskina: Jantokiaren funtzionamendurako araudia	67
II. Jolasaldiaren antolamendua.....	78

XEDAPEN OROKORRAK

CEIP Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia HLHI-ren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. CEIP Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia HLHI ikastetxe publikoa da. Bertan, honako hauek ematen dira: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.
2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, CEIP Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia HLHI-k ezaugarri hauek ditu: plurala da, elebiduna da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.
3. CEIP Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia HLHI-k bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.
4. CEIP Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia HLHI-k, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

1. IKASTETXEKO ORGANOAK

1.1. ZUZENDARITZA ORGANOAK

Angel Ganivet-Sta. Lucía ikastetxeak zuzendaritza organo hauek izango ditu:

1.1.1. BATZAR ORGANOAK

1.1.1.1. IKASTETXEKO ESKOLA KONTSEILUA

1. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak honako kide hauek izango ditu:

- a) Zuzendaria
- b) Ikasketaburua
- c) Irakasleen 10 ordezkari
- d) Gurasoen 15 ordezkari
- e) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat
- f) Udalaren ordezkari bat
- g) Ikastetxeko idazkaria, Eskola Kontseiluko idazkari gisa arituko dena, hizpidearekin baina boto-eskubiderik gabe.

2. Eskola Kontseiluaren eskumenak Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 31.2 atalean azaltzen dituenak dira:

- a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Antolakuntza eta Jarduera Araudia eta Kudeaketa Proiektua onartzea, beren betekizuna zaintzea eta Ikasturteko Memorian beren ebaluazioa egitea, Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 31.2 atalean agintzen duen bezala.
- b) Ikastetxearen urteko plana onartzea, Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 35.2.a) atalean erabakitakoaren kaltetan gabe.
- c) Prestakuntza jardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrizkoen egitaraua eta urteko kudeaketa egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.
- d) Ikastetxearen Urteko Memoria onartzea.
- e) Ikasleen onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araubidean agindutakoari bete-betean lotuz.
- f) Ikastetxeko bizikidetzarako neurri zuzentzaileak ezagutzea eta, beharrezkoa denean aldatzea edo egokitzea, ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituzten arauen arabera.
- g) Beste ikastetxe batzurekin lankidetzara harremanak izatea kultura eta hezkuntzazko helburuez.
- h) Ikastetxeko instalazio eta tresneriaren aldaberrikuntza sustatzea, bai eta haien iraupena zaintzea ere.
- i) Ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza alderdietan.
- j) Lege honek edo beste arau batzuek, edo ikastetxearen antolakuntza eta jarduera araudiak ematen dioten beste edozein aginpide.
- k) Ikastetxeko Eskola Kontseiluan jabegabekoak betetzeko prozedura erabakitzea, ordezkariak ez daudenean eta ondorengo berriztapenetara ailegatu gabe.
- l) Urteko Memoria onartzen den saioan, autoebaluazioa egitea.
- m) AJA hau aldatzea, zuzentzea edo zabaltzea, beharrezkoa denean.

3. Ikastetxeko Eskola Kontseilua ikasturtean zehar, gutxienez, hiru aldiz bilduko da. Era berean, Batzorde Iraunkorrak erabakita edo partaideen heren batek hala

eskatuta bilerarako deia egingo da. Idazkariak hartutako akordioak jasoko ditu akta batean.

4. Ikastetxeko zuzendariak Eskola Kontseilurako deia egingo du data, ordua eta gai zerrenda zehaztuta. Bileretarako gai zerrenda zehaztea batzorde iraunkorraren eskumena da. Eskola Kontseiluko bilera baliogarria izateko, partaideen erdia baino bat gehiago egon beharko dira. Hala ez bada, batzar berrira deituko zaie.
5. Eskola Kontseiluko eta berauen batzordeko kideen botoa pertsonala eta besterenezina izango da ordezkatzeko duten taldearen aginduetara egon gabe. Talde bakoitzaren ordezkariak Eskola Kontseiluan egindako jardueren berri eman behar diote beren ordezkariari, baita luzatutako proposamenen berri baina ez dute Eskola Kontseilura, halaber, bere taldearen eritzia eraman behar. Lagun konkretuekin zerikusia duten gaietan eta beren irudi pertsonalan eragina izan dezakeen gaietan konfidentzialtasuna eskubidea izango dute.
6. Eskola Kontseiluak edo bere batzorderen batek aztertu edo onartu behar dituen dokumentuak, gutxienez, bilera eguna baino 48 ordu lehenago egon beharko dira beren kideen eskura aztertuak izateko. Era berean Ikasturte Plana eta Ikasturteko Memoria Eskola Kontseilu kideen eskuetan egongo da bilera eguna baino bost egun lehenago gutxienez.
7. Eskola Kontseiluaren talde ezberdinetako ordezkariak hartutako akordioen berri bere ordezkariari emateko konpromisoa hartuko dute, baita Eskola Kontseilura eraman nahi duten proposamenak jasotzeko.
8. Ahal bada, akordioak aho batez hartuko dira. Hori posiblea ez balitz erabateko gehiengoak erabakiko du (Eskola Kontseiluaren kideen erdia baino bat gehiago) eta hori lortu ezean gehiengo soilak hartuko du erabakia (bertaratu diren Eskola Kontseilukideen erdia baino bat gehiago). Botoa beste norbaiten esku uztea ez da onartuko.

Akordioak eta erabakiak idatziz jasoak izango dira, idazkariak egindako akta batean.

Eskola Kontseilu kideren batek, hartutako akordioaren kontra balego, nahi izanez gero, jaso ahal izango du bilkuraren aktan eta baita bere desadostasunaren arrazoiak ere.

Egindako aktak Eskola Kontseilu kideen eskura egongo dira, hala eskatuta, eta beti idazkariaren gainbegiratzepean.

1.1.1.2. OOGKO BATZORDEAK

1. OOG batzorde iraunkorra izango da. OOGk EEPLko 36.3 artikuluan zehaztu diren funtzioak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dituzte: zuzendariak, ikasketaburuak, irakasle batek, ikasleen guraso batek eta ikasle batek -sektore bakoitzean aukeraturikoak-.Organo horrek gehiengoz hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez.
2. Bizikidetzaren Batzordeak OOGren osaera bera izango du eta, haren moduan, boto haztatuaren sistema erabiliko. Bizikidetzaren Batzordeak bi funtzio nagusi izango ditu. Batetik, ikastetxean bizikidetzarako giro egokia egotea zaintzea. Bestetik, bizikidetzaren aurkakoak diren eta bizikidetzarentzat larri kaltegarriak izan daitezkeen jokabideak zuzentzeko neurriak ezagutzeko, aplikatzea eta berrikustea.
3. Aipatu berri dugun batzordeaz gain, Ekonomia Batzordea ere sortuko da. Batzorde horrek aurrekoaren osaera berbera izango du. Bere egitekoa: agintzen zaizkion auziei buruz OOGri informazio ekonomikoa ematea.
4. OOGk auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek -artikulu honetako lehen hiru paragrafoetan zehaztu direnak barne- azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumenekoak diren gaien buruz. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan, indarrean dauden arauak betetzearekin lotura duten zenbait gai aztertu dira. Arauetan aurreikusi diren kasu zehatz horietan izan ezik, sortu diren batzorde bereziek erabakiak har ditzakete. Horretarako, berariazko eskumena behar dute eta batzorde iraunkorra nahiz bizikidetzaren batzordearen moduan osaturik egon, hau da, OOGko osaerarekiko proportzionalak izan behar dira. Batzorde berezien esku, beraz, gehiengo soilez ebatz daitezkeen erabaki guztiak utz daitezke.

1.1.1.3. IRAKASLEEN KLAUSTROA

1. Irakasleen Klaustroak hauen berezko partaidetza organoa da. Irakasleen klaustroa ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute, eta ikastetxearen zuzendaria izango da horren buru.
2. Klaustroaren funtzioak Euskal Eskola Publikoaren legeak bere 35.2 eta 35.3 ataletan arautzen ditu:
 - a) Ikastetxearen Curriculum-proiektua eta Irakaskuntza-jardueren Programa lantzea eta onartzea, horretarako aurretik Eskola Kontseiluaren txostena kontuan hartuz, non ikastetxearen Hezkuntza-proiektuan azaltzen diren norabideekin bat ote datozen adieraziko den.
 - b) Irakaskuntza-jardueren programaren betekizun mailaren Eskola Kontseiluari jakinaraztea, hartara Eskola Kontseiluak urteko memoria egin dezan.
 - c) Ikasleen ebaluazioari eta errekerperazioari buruzko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.

- d) Ikasleen orientaziorako eta tutoretzarako funtzioak antolatzea eta zuzentzea.
 - e) Ikastetxean garatu beharreko pedagogia saiakuntzaren edo ikerketaren esparruan ekimenak sustatzea.
 - f) Funtzionamendurako arauak onartzea.
 - g) Irakasleen prestakuntzari dagokionez, prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa jakinaraztea; aipatu programa Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36.3 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz landuko da Eskola Kontseiluak onartu baino lehen.
 - h) Eskola Kontseiluan bere ordezkariak hautatzea.
3. Zuzendariak klaustroaren deia egingo du, bilera baino 48 ordu lehenago. Zuzendaritza-taldeak bai berezko ekimenez, bai irakasle taldeak edo talde pedagogikoez eskatuta banako deia egingo die kide guztiei eta bertan gai-zerrenda, data eta ordua adieraziko ditu. Zuzendaritza-taldeak, bilera baino lehen, behar den informazioa eta dokumentazioa bilduko ditu eztabaida eta erabakien hartzea errazteko. Bilera bakoitzean gai-zerrendatik kanpoko gaiak tratatzeko aukera egongo da, klaustroaren hiru laurdenak hala eskatzen badu.
 4. Klaustroak bere eskumenen esparruan, Zuzendaritza-taldea edo talde pedagogikoen proposamenak, aztertu, baloratu eta hala badagokio bere onespena emango dizkio.
 5. Ikasturtearen hasieran bilera egingo du ikastetxeko antolaketa eta kurtsoaren ikasketa programari oneritzia emateko. Era berean, ikasturtearen bukaeran, berriz ere, bildu egingo da kurtsoaren bilakaerari buruzko txostena egiteko eta ikasturteko memorian bere ekarpenak txertatzeko. Horrekin batera, hurrengo kurtsorako proposamenak eta hezkuntza proiektuak zehaztuko dituzte hurrengo ikasturteko planean islatzeko.
 6. Klaustroa, bere eskumenak eta funtzioak direla eta, behar den guztietan bilduko da. Hala ere, ikasturtean, zuzendariak, Zuzendaritza-taldeak edo irakasleen heren batek hala eskatuta bilduko da. Akordioak eta erabakiak akta-liburu ofizialean jasoak izango dira. Horren ardura ikastetxeko idazkariarena izango da.
 7. Ikasturteko Planaren irakaskuntza jardueren programa eta Ikastetxeko Curriculum Proiektua egiteko, gauzatzeko, ebaluatzeko eta aldaketak proposatzeko klaustroak Pedagogia Batzordearen laguntza izango du, irakastaldean proposamenak bilduz.
 8. Klaustroak, legeak arautzen dituen baldintza guztiak deituta, egiten dituen bilkuretan ikastetxeko irakasle guztiek derrigorrez bertaratu behar dute. Beraz, kideren batek, ezinbestekak bultzatuta, etortzerik ez badu, horretarako arrazoiak justifikatu beharko ditu. Horrekin batera bertaratu diren eta bertaratu ez diren irakasleen izenen zerrenda aktan agertuko da. Akta idazkariak egingo du. Zuzendariak aktak gainbegiratu eta irakasle guztiek aho batez onartu beharko dituzte.

9. Ahal bada, akordioak aho batez hartuko dira. Hori posiblea ez balitz gehiengo soilak hartuko du erabakia (bertaratu diren klaustrokideeen erdiak baino bat gehiago). Irakasleren batek, hartutako akordioaren kontra balego, nahi izanez gero, jaso ahal izango du bilkuraren aktan eta baita bere desadostasunaren arrazoiak ere.

1.1.1.4. ZUZENDARITZA-TALDEA

1. Zuzendaritza-taldea zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak osatuko dute.
2. Zuzendaritza-taldearen funtzioak Euskal Eskola Publikoaren legean, bere 36.2 atalean arautzen dira:
 - a) Ikastetxearen zuzendaritzari eta koordinazioari buruzko erabakiak hartzeko orduan, zuzendariari laguntzea, baita ikastetxearen funtzionamenduari dagokionez eragin handia duten erabakiak hartzeko orduan ere.
 - b) Kudeaketa-proiektua, Prestakuntza-jardueren, Eskolaz Kanpoko Jardueren eta Jarduera Osagarrien Programa lantzea, baita Urteko Kudeaketa-programa ere, Eskola Kontseiluak horiek guztiak onar ditzan.
 - c) Aurrekoan aipatu diren programak gauzatzen direla koordinatzea eta gainbegiratzea, eta Eskola Kontseiluari programen gauzatzeari buruzko informazioa ematea, hartara urteko memoria onesteko.
 - d) Urteko Memoriaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluak eztabaida dezan.
 - e) Eskola Kontseiluari euskal eskola publikoko beste ikastetxe batzuekin lankidetzaharremanak finkatzea proposatzea, baita proposamen desberdinak egitea ere, hartara Eskola Kontseiluak egokitzat jotzen badu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera luza ditzan, beste erakunde batzuekin, kultur mailako zein hezkuntza-mailako helburuak dituztenak, hitzarmenak sinatzeko.
 - f) Irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasleak bere jarduerak zeintzuk izango diren zehazteko erizpideak finkatzea, ikasgaia arautzen duten arauen arabera.
 - g) Ikastetxeko ikasgintzan curriculum proiektuaren betekizuna zaintzea.

1.1.2. LAGUN BAKARREKO ORGANOK

1.1.2.1. ZUZENDARIA

1. Zuzendariaren funtzioak Euskal Eskola Publikoaren legearen 34 atalak arautzen ditu:
 - a) Ikastetxearen ordezkari ofiziala izatea.
 - b) Ikastetxearen funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, eta ikastetxearen ekitaldi akademikoaren eta taldeko organoaren bileren buru izatea.
 - c) Ikastetxearen gastuen urteko programaren arabera, gastuetarako baimenak ematea eta ordainketak agintzea.

- d) Lanen, zerbitzuen eta hornikuntzen kontratazioak egitea.
- e) Ziurtagiri eta agiri ofizialak onikustea.
- f) Legeak eta indarrean dauden gainontzeko xedapenak betetzea eta betearaztea.
- g) Eskola Kontseiluari zuzendaritza kargu desberdinen izendapena proposatzea.
- h) Ikastetxera atxikitako langile guztien buru izatea.
- i) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek eskuordetzen dituzten gainontzeko eskumenak; beste arau batzuei jarraiki egozten direnak eta honako A.J.A.k arautzen dituenak.

1.1.2.2. IKASKETABURUA

1. Ikasketaburua dugu Curriculum-proiektua gauzatzen dela baita Irakaskuntza-jardueren Programa gauzatzen dela zuzenean koordinatuko eta zainduko duen pertsona.
2. Ikasketaburuak ikastetxeko Zuzendaritza-taldeak onartutako irizpideen arabera, jarraian azaltzen diren funtzioak ere bete beharko ditu:
 - a) Izaera akademikoa duten jarduerak koordinatzea eta dinamizatzea.
 - b) Ordu-tegi akademikoa antolatzea eta betetzen direla arduratzea
 - c) Zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideen arabera eta klaustroaren iritzia entzun ondoren irakasle bakoitza ikastetxeko unitate batera edo gehiagora bidaltzea eta irakasle-taldeak antolatzea.

1.1.2.3. IDAZKARIA

1. Idazkaria ikastetxeko administrazio-kudeaketaren arduraduna da.
2. Idazkariak honako funtzioak izango ditu:
 - a) Eskola Kontseiluak, Zuzendaritza-taldeak eta klaustroak egiten dituzten bilkuretan eztabaidatuko den gai-zerrenda prestatzea, aipatutako organoen presidentek xedatzen duenaren arabera. Gainera, organo hauen bilkuren aktak idatzi beharko ditu.
 - b) Ikastetxearen aktak, espedienteak eta dokumentazioa zaintzea eta bertako organoek erabiltzeko prest edukitzea.
 - c) Zuzendariaren onarpenarekin eskolak hartzen dituen erabakiak, akordioak, ebazpenak berretsi baita eskolako dokumentuak, liburuak eta ekintzak ere.

1.2. PARTE HARTZEKO ETA ELKARLANERAKO ORGANOAK

Angel Ganivet-Sta. Lucía ikastetxean organo hauek izango dira:

1.2.1. PARTE HARTZEKO ORGANOAK: GURASOEN BATZARRA

1. Ikastetxean matrikulatu diren ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute honako organo hau.
2. Gurasoen asanbladaren funtzioak Euskal Eskola Publikoaren legearen 38.2 atalak arautzen ditu:
 - a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainontzeko organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaietako dagokienez, besteak beste irakaskuntza-jardueren programaren gauzatzea, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa-programa.
 - b) Zuzendaritza-taldearekin eta Klaustroarekin harremanak izatea, hartara ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetz handiena lortzeko.
 - c) Gurasoen ekimena ikastetxearen bizitzan aktiboki parte hartzeko sustatzea.
 - d) Taldeko organoetako gurasoen ordezkariak bilkuretan azaltzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa emateko.
 - e) Bere funtzionamendurako arauak onestea.

1.2.2. ELKARLANERAKO ORGANOAK: GURASOEN ELKARTEA

1. Ikasleen guraso elkarteak gurasoek parte hartzeko eta elkar lanerako organoak dira. Elkarte horietako kide izatea norberak bere borondatez erabakiko du.
2. Gurasoen Elkarteak ikastetxean arazorik gabe eratu daitezke, baldin eta indarrean dagoen legearen arabera osatzen badira eta eratze horren berri ematen badiote Eskola Kontseiluari.
3. Guraso Elkarteen eskumenek honako esparru hauetan izango dute eragina:
 - a) Guraso Elkartearen zuzendaritza batzarrean.
 - b) Eskola Kontseiluak sortutako lan batzordeetan.
 - c) Guraso eta ikasleen defentsan baldin eta beren eskubideak zapalduta edo utzikieriaz jokatu dela ikusten badute.
 - d) Ikasturteko Plana osatzeko proposamenak aurkezten, batez ere, eskolaz kanpoko eta osagarritzko ekintzetarako.

- e) Eskolaz kanpoko eta osagarrizko jarduerak antolatzen eta era berean irakasleek eskola ekintza konkretuak burutzeko eskatutako laguntzari erantzuten.
 - f) Gurasoen formakuntzarako eta informazioa emateko ekintzetan.
4. Gurasoen Elkarteek aldiro-aldiro beren jardueren berri eman beharko diote Eskola Kontseiluari.
 5. Gurasoen Elkarteek beren ekintzak burutzeko ikastetxeko instalazioak erabili ahal izango dituzte betiere zuzendariaren oneritziarekin eta jarduera akademikoan oztoporik sortu gabe. Guraso Elkarteek beharrak jakinarazi ondoren, Zuzendaritza-taldeak behar dituzten gelak utziko dizkie, ikastetxeko baliabideen arabera.

1.3. PEDAGOGIA KOORDINAKETARAKO ORGANOAK

Angel Ganivet-Sta. Lucía ikastetxean hauexek izango dira pedagogia koordinaketarako organoak:

- 1.3.1. Irakasleen Klaustroa
 - 1.3.1.1. Irakasleak
 - 1.3.1.2. Tutoretza
- 1.3.2. Etapa/ziklo/mailetako irakastaldeak
- 1.3.3. Pedagogia Batzordea
- 1.3.4. Hezkuntza zerbitzuak
- 1.3.5. Eskola zerbitzuak

1.3.1. IRAKASLEEN KLAUSTROA

1.3.1.1. IRAKASLEAK

1. Irakasleen betebeharrak izango dira:

- a) Curriculum Proiektuaren ildoari jarraituz, irakaskuntza-jardueren programa egin, garatu eta ebaluatzea.
- b) Beren ikasleen tutoretza egitea, horien ikasketak bideratzeko.
- c) Atxekitutako irakasle taldeetan esku hartzea, ikastetxeko jarduera bateratua eta egokia lortzeko asmoz.
- d) Ikasturteko Planaren burutzapenean eta bertan azaltzen diren proiektuetan parte hartzea dagokien moduan. Era berean, ikastetxeko eta irakasle taldearen ebaluaketaren eragile izango dira.
- e) Hezkuntza Sailak eta Zuzendaritza organoek arautzen dituzten baldintzapeetan, formakuntza jardueretan parte hartzea betiere norberaren

eskubideak kontuan hartuta eta klaustroak ezarritako irizpide pedagogikoak oinarri dutelarik.

- f) Ikastetxeko beharrak eta irakaslearen ordutegia kontuan hartuta, atxekitutako ardurak eta funtzioak zuzen betetzea.
 - g) Ikasketaburua eta AJA honetan agertzen diren beste arduradunen koordinaziopean, ikastetxeko antolaketa eta jarduera egokian elkar lan egitea.
 - h) Irakasleen klaustroetara, bilera pedagogikoetara eta partaide direneko aginte organoetako bileretara joatea.
 - i) Hezkuntza Sailak edo ikastetxeko aginte organoek ezarritako arau orokorrak betetzea.
 - j) Tutoretza Planak diseinatzea, beste irakasleekin batera.
2. Irakasleek irakasle-lanaz gain, Arautegi honetan jasotzen denaren arabera eta Urteko Planean onartutakoaren arabera, honako lan espezifikoak ere bete ditzakete:
- a) zuzendaritza lana
 - b) tutoretza lana
 - c) irakasle taldeen ardura
 - d) heziketa zerbitzu eta eskolako zerbitzuen ardura

1.3.1.2. TUTORETZA

1. Ikasle guztiak ikastalde bati atxekituta egongo dira. Bakoitzak irakasle tutore bana izango du. Zuzendaritza-taldeak, klaustroaren iritzia entzun ondoren, egingo du izendapena. Zuzendaritza-taldeak kontraktorik erabakitzen ez badu edo legeak aurrikusitako salbuespenetan izan ezik taldeak, tutore bera izango du zikloan zehar.
2. Irakasle tutoreek honako funtzio hauek beteko dituzte:
 - a) Ikasleen ikaskuntza orientatzea.
 - b) Gurasoei, heuren seme-alaben eskolako agertzeari eta irakaskuntza jardueretan egiten duten partehartzeari buruz informazioa ematea, baita hezkuntza prozesuari eta izan ditzaketen zailtasunei buruz ere.
 - c) Irakasle-taldeak onartu duen tutore-ekintzarako plana garatzea.
 - d) Ikaslea bere taldean eta eskola bizitzan integratzen laguntzea, baita ikasleengan parte hartzeko jarrerak garatzea ere.
 - e) Ikasleek ikaskuntzan azaltzen dituzten zailtasun orokorrenei laguntzea, horretarako programazioan egin beharreko egokitzapenak eginez; horrez gain, banakako hezkuntza premiak ere kontuan hartu behar dituzte, hartara, egin beharreko curriculum egokitzapenak egin ahal izateko.

- f) Taldeko gainontzeko irakasleekin programazioaren koherentzia eta irakaskuntzak curriculum proiektuarekiko eta Ikastetxearen urteko programazioarekiko koherentzia ere koordinatzea.
- g) Laguntzako irakasleekin batera, edo hala badagokio, kontsultorearekin batera, curriculum-egokitzapenak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin hezkuntza-mailako esku hartzea koordinatzea.
- h) Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta irakasleen txostenak kontuan hartuz, ikasleak ziklo batetik bestera igarotzeko erabakia hartzea.

1.3.2. ETAPA/ZIKLO/MAILAKO IRAKASTALDEAK

1. Ikastetxeko Curriculumak etapa edo zikloa du bere antolaketarako denboraneurria ikastetxeko Curriculum Proiektuan jasotakoaren arabera helburu, eduki eta ebaluaketa irizpide bere-bereak dituelarik.
2. Etapa edo ziklo batean aritzen den irakastaldeak etapa edo ziklo taldea osatzen du. Irakasle batek ziklo batean baino gehiagotan aritzen badu horietako batean atxekituko da nahiz eta, beharra dagoenean, beste batean parte hartzeko aukera izan.
3. Betebeharrak eta ardurak banatzerakoan, lehentasuna izango du zikloan ahalik eta irakasle gutxien parte hartzeak; era berean, saiatuko gara irakasle bakoitza ziklo bakar batean aritu dezala eta hori posiblea ez balitz ondoko zikloetan aritzea.
4. Etapako edo zikloetako taldeak irakasleen koordinaziorako oinarrizko egiturak dira. Ikastetxeko Curriculuma eta Zuzendaritza-taldea, Pedagogia Batzordea edota klustroaren irizpideak oinarri hartuta, eskola ekintzak programatzeko eta koordinatzeko eta horien inguruan erabakiak hartzeko eskumena izango dute.
5. Etapako edo zikloetako taldeak honako funtzioak bete beharko ditu:
 - a) Ikastetxeko Ikasketa-Proiektuak zehaztutakoaren arabera, zikloan irakatsi beharreko irakasgaien programa didaktikoen osaketa koordinatzea.
 - b) Ziklo bat osatzen duten ikasle-taldeentzat diseinatutako programazioen emaitzak aztertzea, eta beharrezkoa bada, programazioak aldatzea.
 - c) Hezkuntza-jardueran, irakasleen irizpideak bateratzea.
 - d) Hobetzeko plana prestatu, abian jarri eta ebaluatzea bizkortzea.
 - e) Taldeetako tutoretza saioak eta familietako informazio orokorra prestatzea eta koordinatzea.
 - f) Zuzendaritza-taldeari prestakuntza- edo berrikuntza-proiektuak proposatzea.
 - g) Ikastetxeko proiektu eta planak osatzen laguntzea.
 - h) Pedagogia Batzordearen proposamenak aztertzea eta horiei erantzuna ematea, baita beren proposamenak Zuzendaritza-taldeari luzatzea.

- i) Ekintza osagarriak antolatzea eta burutzea.
 - j) Ikastetxeko organo eskudunek eskatutako lanak egitea.
6. Irakaskuntza-jardueren programan aurreikusitako lan plangintza burutzeko bileraren maiztasuna hauxe izango da.
- Ziklo eta mailako taldeak astean behin.
 - Etapako taldeak beharrezkoa den guztietan.

Bilera horietara joatea derrigorrezkoa da taldeko kide guztientzat. Horiez gain, ziklo eta mailako taldeek honako betebeharrak hauek burutuko dituzte:

- a) Ikasturtearen hasieran, helburuak, programa, ebaluazio irizpideak, elkarrekiko informazio bideak eta ikasleek ikastetxetik kanpo egin behar dituzten etxeko lanak zehaztuko dituzte.
 - b) Ebaluazioaldi bakoitzean, ikasle eta taldeen egoera akademikoa aztertu, beharrak antzeman eta beraiei erantzuna eman.
7. Etapa edo ziklo bakoitzak bere koordinatzailea izango du ikasturtearen hasieran bere kideen artean izendatuta. Etapa bakoitzeko koordinatzailea (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) ikasketaburua izango da.
8. Etapa edo zikloetako koordinatzaileek jarraian azaltzen diren funtzioak bete beharko dituzte:
- a) Etapa edo zikloetako irakasleen bilerak antolatu, deitu eta zuzentzea.
 - b) Etapako Curriculum Proiektuaren osaketa eta/edo berrikusketa dinamizatzea eta irakasleek gai horri buruz egindako proposamenak helaraztea.
 - c) Ikastetxeko Pedagogia Batzordean parte hartzea.
 - d) Etapa edo zikloetako ikasleen tutoretza-funtzioak koordinatzea.
 - e) Etapa edo zikloetako irakaskuntza Curriculum Proiektuaren arabera koordinatzea.
 - f) Jarduera osagarriak koordinatzea eta jarduera horiei buruzko zehaztapenak ikasketaburuari ematea ahalik eta azkarren.
 - g) Bere eskumenen barne, ikasketaburuak agindutako beste lanak egitea, bereziki hezkuntza-errefortzua, curriculum egokitzea eta jarduera osagarriak antolatzea.
9. Etapako edo zikloetako koordinatzaileek, Zuzendaritza-taldearen atzetik, lehentasuna izango dute ikaslerik gabeko orduak eskuratzeko beren betebeharrak burutzeko.

1.3.3. PEDAGOGIA BATZORDEA

1. Pedagogia Batzordea zikloko irakastalde desberdinak koordinatzeko organoa da.
2. Pedagogia Batzordearen presidentea zuzendaria izango da eta ikasketaburuarekin, zikloetako koordinatzaileekin, aholkulariarekin eta ikastetxeko proiektuen arduradunekin ere osatuta egongo da.
3. Batzordearen funtzioak:
 - a) Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren eta egitea koordinatzea, martxan jartzea eta ebaluatzea Klaustroaren proposamenak aintzat hartuta, ondoren Klaustroak berak onar dezan.
 - b) Irizpide komunak ezartzea ziklo eta arloen artean eta ziklo bati baino gehiagori dagozkion jarduerak koordinatzea.
 - c) Formakuntza, ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko egitaraua egin behar duen komisiolari aurkeztea irakasleen arlo honi dagozkion proposamenak.
 - d) Aginte Organoek eman ahal dizkioten bestelako batzuk.
4. Batzorde Pedagogikoaren erabakiak operatiboak izango dira ikastetxeko Aginte Organoek hartutako erabakiak martxan jartzeko. Batzorde Pedagogikoak, nahi duenean, eztabaidatzeko eta erabakitzeke proposamenak luza diezaiokete aginte organo horiei.
5. Bilerak astean behin egingo dira eta ikasketaburuak edo Pedagogia Batzordearen partaideen heren batek eskatzerakoan.

1.3.4. HEZKUNTZA ZERBITZUAK

1. Hezkuntza zerbitzuek irakasleei beren jarduera hobetzen laguntzeko balio dute.
2. Ikastetxeak honako hezkuntza zerbitzu hauek izango ditu:
 - a) Ikastetxeko laguntza taldea: heziketa bereziko irakasleak, aholkularia eta ikasketaburua
 - b) Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroa (Berritzegune)
 - c) Berritzeguneko Talde Multiprofesionalaren laguntza, diagnosiak egiteko edo aholkuak emateko
 - d) Hezkuntza Laguntzako Espezialistak
 - e) Logopedia
 - f) Fisioterapia
3. Hezkuntza zerbitzu bakoitzak bere arduraduna izango du.

4. Hezkuntza zerbitzu guztiak ikasketaburuak koordinatuko ditu eta eta noizean behin beren lanari buruzko informazioak jasoko ditu.

1.3.5. ESKOLA ZERBITZUAK

Ikastetxeak honako eskola zerbitzuak izango ditu:

- 1.3.5.1. Eskola jantokia
- 1.3.5.2. Eskola liburutegia
- 1.3.5.3. Ikastetxeko baliabide didaktikoak

1.3.5.1. ESKOLA JANTOKIA

Eskola jantokia kudeaketa zuzeneko da, kudeaketa eskolan bertan egiten baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2000ko martxoaren 22ko Aginduaren II. Kapituluak arautzen duenaren arabera. (2000-03-28ko EHAA).

Jantokiko araudia I. eranskinean jasota dago.

1.3.5.2. ESKOLA LIBURUTEGIA

1998 urtetik aurrera liburutegi-proiektua dago.
Proiektua aurrera eramateko Eskolako irakasle arduraduna dago.

1.3.5.3. IKASTETXEKO BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Ikastetxeko baliabide didaktikoak zikloetako irakasleek eta irakasle espezialistek kontrolatuko dituzte. Zaintzeaz, txukuntzeaz eta banatzeaz arduratuko dira lokalak eta ekipamenduak barne, ikus-entzunezkoak, gimnasioa, material suntsikorra.... Arduradun bat izango da eta bere jardunean hainbat ordu izango ditu egotzi zaizkion betebeharrak burutzeko.

Zuzendaritza Taldearen esku egongo da, irakasleen proposamenak entzunda, baliabide berrien erosketa-lehentasunak ezartzea honetarako dagoen diru kopurua kontuan hartuta.

2. ESKOLA JARDUERARAKO ARAUAK

2.1. IRAKASLEENTZAKO ARAUAK

1. Irakasleek 30 orduko lanaldia egingo dute astero. Irakastorduen ordutegia ikasturtearen hasieran erabakiko da langile kopurua eta onartutako programak kontuan hartuta.

- a) Ikastetxeko edo irakasleen ordezkartzan aginte organoetako edo beste erakundeetako bileretara joateko emandako orduak, posiblea den guztietan, ikaslerik gabeko ordutegitik deskontatu daitezke.
- b) Irakastorduetatik kanpo ikastetxean egon beharreko ordutegi komuna honako zeregin hauetan erabiliko da:
 - Klaustroaren bilerak.
 - Irakastaldeko koordinazioa.
 - Gurasoekin elkarrizketak egiteko.
 - Formakuntza edo informazio bilerak.
- c) Irakastorduetatik kanpo ikastetxean egon beharreko ordutegi pertsonala honako zeregin hauetan erabiliko da:
 - Irakaskuntzatik aparte, bere karguak edo ardurak propio dituenak.
 - Beste irakasleak ordezkatzeko.
 - Irakaskuntza jarduera programan aurreikusitako lan taldeetan parte hartzea.
 - Irakaskuntza jarduerarekin zerikusia duten lanak burutzeko.
 - Koordinazio pedagogikoa.

2. Irakasleek AJA honek arautzen dituen organo eta funtzioen arabera, atxekitzen zaizkien irakaskuntza jarduerak eta betebeharrak hartuko dituzte beren gain.

- a) Zuzendariak irizpide pedagogikoak kontuan hartuta eta Zuzendaritza-taldea, klaustroa eta interesatuen eritzia entzun ondoren behar diren erabakiak hartuko ditu betebeharrak esleitzeko edo dudakoak izan daitezkeen egoerak ebazteko.
- b) Klaustroak proposaturik, Zuzendaritza-taldea koordinazioa eta ordezkapen arduradunak izendatuko ditu, karguak betetzeko dagozkien ordutegi murrizketa kontuan hartuta araudia edo ikasturteko planaren arabera.
- c) Ikasle eta irakasleen irakastorduak zehaztu eta gero, Zuzendaritza-taldea, klaustroaren iritzia entzun ondoren, betebeharren zerrenda egingo du. Proposamen horretan hainbat gaitan bikoizketak egiteko, indartze neurriak emateko eta formakuntza plana edo irakaskuntza jarduera programan sortutako beharrei erantzuteko lehentasunak finkatuko dira. Horiek burutzeko

arduradunak izendatu eta eginbehar horiek betetzeko izango duten denbora zehaztuko ditu.

- d) Klaustroak irakasleen ordutegia onartuko du eta irakaskuntza jardueren programan sartuko da. Hezkuntza Ikuskaritza Teknikoari bidaliko zaio bere oneritzia eman diezaion. Irakasleen ordutegia ikus daitekeen lekuan egon beharko da beti, estamentu guztiek ikus dezaten.
- e) Zuzendariak tutoretzak eta beste irakaskuntza arloak esleituko ditu.
- f) Tutoretza eta irakaskuntza lanak esleitzeko, zuzendariak honako irizpide hauek izango ditu kontuan:
 - Ikastalde bakoitzak bere tutorea izango du eta talde horretako arlo gehienak emango ditu.
 - Tutorea ziklo osoan mantenduko da, pedagogikoki positiboa denean.
 - Tutoretzen banaketa, lan horretarako esleitutako edo izendatutako artean egingo da, Ikasturtearen Hasierako Ebazpenean agertutako irizpideen arabera.
 - Irakasle espezifikoek beren espezialitatearen irakaskuntza hartuko dute beren gain. Zeregin horretan, beren ahalezko ordutegia legeak xedatzen duena baino handiagoa bada, Zuzendaritza-taldeak erabakiko du zeintzuk izango diren lehentasunak gehienezko muga horiek ez gainditzeko.
 - Dena dela, posiblea denean, ziklo taldeak, espezialistek ziklo bakar batean lan egin dezaten antolatuko dira. Horrela irakastalde bakoitzak zikloan ematen diren gai guztietako ardura izango du.

2.1.1. IRAKASLEEN ESKUBIDEAK

1. Irakasleek legeak arautzen dituen eskubideak izango dituzte.
2. Beren hobekuntza eta gaikuntza etengabe garatzea.
3. Beren ideia politiko eta/edo erlijiozkoak direla eta, ikastetxeko inor ezin izango da baztertua izan.
4. Indarrean dagoen legea eta AJA honetan jasotako arauen barruan irakaskuntza lanetan aritzea egokien iruditzen zaizkien metodoak erabiliz.
5. Ikasgelan, ikaslearen arreta eta lana eskatzeko eskubidea.
6. Ikasleek eta hezkuntza elkartearen beste kideek berarekin errespetuz eta era egokian aritzeko eskubidea, bai hitzez, bai ekintzaz.

7. Ezarritako orientabide, plan eta programen barruan ikerketa lanetan aritzea egokien iruditzen zaizkien metodoak erabiliz.
8. Ikastetxearen jarduerari esta disziplinari eragiten dion guztian parte hartzeko eskubidea arauz jarritako bideak erabiliz.
9. Ikastetxeari buruzko behar bezalako eta garaian garaiko informazioa jasotzea.

2.1.2. IRAKASLEEN BETEBEHARRAK

2.1.2.1. IKASLEEKIKO

1. Beren ardurapean dauden ikasleen nortasuna errespetatzea.
2. Ikasleen arteko diskriminaziorik ez egitea.
3. Bere tutoretzako ikasleak ahalik eta hobekien ezagutzea haiekiko laguntza eraginkorragoa izan dadin.
4. Ebaluazio irizpideak azaltzea, horiei zuzen lotzea ahalik eta era objektiboagoan.
5. Kalifikazioei buruz ikasleek azaltzen dituzten zalantza guztiak argitzea.
6. Ikasleen eta irakasleen gizatasunezko elkarbizitzari, moral, etiko eta erlijio usteei eta bakoitzaren duintasunari begirunea izatea.
7. Emakumeen nahiz gizonen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik atzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek ikastetxeko gobernuorganoei jakinaraztera, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25. artikuluan nahiz Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 31. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
8. Ikasleei eta beren familiei buruzko datu pribatuei dagokienean, zuhertasunez jokatuko dute beren jardun profesionalean jasotako informazioa bada.
9. Ezarritako jarraibideei atxikituz, berdinen arteko tratu txarrak errotik kentzen lagunduko dute eta ikastetxeko Zuzendaritzari jakinazaziko diote Hezkuntza Sailari egoeraren berri emateko.

2.1.2.2. IKASTETXEAREKIKO

1. Klaustrokidea izan eta bilera pedagogikoetara joatea.
2. Jolastorduen zaintzan parte hartzea ezarritako txandak betetzen.
3. Instalazio eta materialen erabilera eta mantenimendu egokia egitea.
4. Puntuala izatea bai gelako sarreretan baita irteeretan ere.
5. Atsedendietan ikasleak ikasgelan bakarrik geratzeko ez du, inolaz ere, baimenik emango, berak zuzenean zainduko dituen ekintzak burutzeko ez bada.
6. Lan orduetan ikastetxetik kanpora joateko baimena eskatzea zuzendariari.
7. Ikastetxera etortzerik ez izanez gero, zuzendariari jakinaren gainean jarri eta lan plana utzi ordezeko irakasleari.
8. Beren ikasleen agiriak egunean edukitzea.
9. Ikasleek hutsegín edo jarritako orduan etorri ezean idatzirik jasotzea.
10. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektuan oinarriturik irakaskuntza eta pedagogia taldeekin elkarlanean jardutea.
11. Ikasleen ebaluazioa, orientazioa eta tutoretza gauzatzea.
12. Beraiei dagozkien gaietan AJA hau betetzea.
13. Gelako diziplina zaintzea berezko arduraduna denean eta ikastetxeko diziplina orokorrean elkar eragile izatea.

2.1.2.3. GURASOEKIKO

1. Gurasoak hartzea zehaztutako egun eta orduetan.
2. Gurasoak deitzea beharra ikusten duenean.
3. Ikasleen familiakoei nola doazen jakitera ematea. Gutxienez, talde bilera egingo da ikasturtearen hasieran eta banakako beste bat ikasturtean zehar.
4. Orokorrean eta diziplina arloari dagokionean, irakasleek Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta

betebeharrei buruzko 201/2008 DEKRETUAK (abendua ren 2koa), xedatutakoa jarraitu beharko dute.

2.2. IKASLEENTZAKO ARAUAK

1. Ikasleek 25 orduko lanaldia egingo dute astero. Eguneko jarduna 5 ordukoa izango da.
2. Formakuntza Planak irakasle guztientzako edo ziklo batentzako jarduerarik aurreikusten duenean, zeregin horretarako arratsalde oso bat erabil daiteke ordutegiaren aldaketa Eskola Kontseiluak onartu behar duelarik. Aldaketa horrek ez du ez ikastegun ezta ikastordu murrizketarik suposatuko.
3. Curriculum Proiektuan gai bakoitzean zikloetan zehar eman behar diren orduak zehazteko irizpideak finkatuko dira gutxienezko ordutegiak errespetatu behar direlarik. Banaketa hori gutxi gora beherakoa izango da ekintza batean arlo ezberdinetako edukiak lantzea komenigarria baita.
4. Ziklo talde bakoitzak, ikasleek egin behar dituzten ekintzetako ordutegia zehaztuko du. Tutoreek ahalik eta estuen lotuko dira proposamen horri. Ziklo taldeak, ordutegiak ezartzerakoan, gutxienezko ordutegia.
5. Taldean irakasle bat baino gehiago ari bada, jakintza-arloak ondorengo irizpideei jarraituz antolatuko dira:
6. Euskara eta Gaztelania arloek 4 edo 5 saio izango dituzte astean.
7. Saio luzeagoak behar dituzten arloak luza daitezke nahiz eta maiztasuna gutxitu.
8. Ikasle guztiek tutore baten ardurapeko erreferentzia talde bat izango dute. Ikastalde bakoitzak erreferentzia ikasgela bat izango du eta bertan burutuko ditu ekintza gehienak.
9. Maila bereko ikasleen ohiko ikastaldeak irizpide hauek jarraituz eratuko dira:
 - Gehienezko ume kopurua errespetatuko da, 23 Haur Hezkuntzan eta 25 Lehen Hezkuntzan.
 - Ikasle bakoitzak talde batean dago eta talde hau izango da bere erreferentzia taldea .
 - Taldea tutore baten ardurapean dago.
 - Taldean aniztasuna baloratzen da.
 - Hala taldekaturik egon arren, arlo batzuetan eta zenbait unetan, lan egiteko talde malguak egiten ditugu planteatutako helburuak lortzeko.
 - HH2 urteko taldeak egiteko irizpideak izango dira:

- ▶Neskak eta mutilen arteko proportzionaltasuna
 - ▶Jaio data kontuan hartuko da. Txikienekin proportzionaltasuna
 - ▶Bikiak
 - ▶Behar bereziko ikasleak
 - ▶Euskaldunen proportzionaltasuna
 - ▶Familien jatorri desberdinen proportzionaltasuna
- Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzean, HHko irakasleen iritziak lehentasuna izango du talde banaketa egiterakoan eta batez beste taldeen oreka bilatuko da.

2.2.1. IKASLEEN ESKUBIDEAK

Ikasleek eskubide hauek dituzte:

2.2.1.1. HEZKUNTZA INTEGRALA IZATEKO ESKUBIDEA

1. Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute.
2. Hezkuntza integral horretan, oinarrizko gaitasunak, zientziaren eta kulturaren arloko edukiak eta lan-ohitura intelektual eta teknikoak hartu ez ezik, garapen harmoniatsua ere bultzatuko da honako hauei dagokienez: afektibotasuna, autonomia pertsonala, autoestimua, besteekiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna, eta jarduera profesionaletan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaitasuna. Prestakuntza horrek barnean hartzen du ikasleek euskal herriko kide gisa beren kultura-nortasuna aurkitzea eta derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai izatea.
3. Ikastetxeetako hezkuntza eta curriculum proiektuak helburu horretara bideratuko dira, betiere, legeek hezkuntzari esleitzen dizkioten helburuen barnean. Hain zuzen ere, proiektu horietan 3/2005 Legearen —otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoaren— 24.2 artikuluan adierazitako alderdiak bilduko dira, baita 4/2005 legearen —otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoaren— 29. artikuluan adierazitakoak ere. Era berean, programazioek eta irakasleen lan orok kontuan izango dituzte alderdi horiek, eta irakasleen aginpideak bermatuko duen lan-giroan garatu beharko da, eskolajardueren barnean nahiz eskolatik kanpokoetan eta osagarrietan, eta irakasle guztien laguntzarekin.

2.2.1.2. IKASLE ADINGABEEN ESKUBIDEA ARRETA BEREHALA JASOTZEKO

1. Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.
2. Arreta hori zuzenean eskainiko da eskumen-eremuari hala badagokio. Ez badagokio, aitzitik, erakunde edo zerbitzu eskumendunari kasua helaraziko zaio. Era berean, gurasoei, adingabearen tutoreari edo, beharrezkoa balitz, Fiskaltzari gertakarien berri emango zaie berehala.
3. Ikastetxeak eta bertako irakasleak, ikasleei behar duten arreta berehala ematea bazter utzi gabe, behartuta daude tratu txarrak edo haurren babesik gabeko edo arriskuko egoeren berri ematera adingabeen babesari buruzko eskumena duten Herri Administrazioei, edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo Agintaritza Judizialari. Esku-hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren adina datu eta informazioen berri eman beharko dute, eta aipatutako Administrazioei laguntza eman beharko diete egoera horiek saihestu eta konpontzeko.
4. Hala ere, beti kontuan izan beharko dira adingabearen lehentasuneko interesak. Era berean, derrigorrezko eskolatze-adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek absentismo-maila handia duela atzematen bada, Hezkuntzaagintariei eta tokiko erakundeei jakinarazi beharko zaie, eskola-absentismoan inplikaturik dauden Administrazio eta Erakunde guztien arteko lankidetzak lortzearren. Nolanahi ere, behar den diskrezioz jardungo da, eta ikasle adingabearen bizitza pribatua sartzeko saihestuko da beharrezkoa ez bada.

2.2.1.3. IKASTETXEAK BABESTEKO IKASLE ADINGABEEK DUTEN ESKUBIDEA

1. Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.
2. Ikastetxeetako gobernu-organismoek behar diren neurriak hartuko dituzte bereziki ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako eskubideei inork eraso edo kalte egin ez diezaien, eta, horretarako, beren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudien barruan edo Barne Erregimenean teknologia berrien erabilera arautzeko eta horiek mugatzeko mekanismoak garatu ahalko dituzte.
3. Ikastetxeetako gobernu-organismoek zainduko dute ikasleen bizitza pribatua, familia, etxean edo postan ikastetxeko inor arrazoirik gabe edo legez kanpo ez dela sartzen. Familiei, ikasleen bitartez, soilik ikastetxeko bizimoduari, irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerari eta tutoretza-ekintzari buruzko jakinarazpenak, komunikazioak eta agiriak emango zaizkie, eta horiek guztiak honako hauek emango dituzte: administrazio-organismoek, gobernu-organismoek edo ikastetxeko

koordinazio didaktikoak, beren funtzioen barruan, irakasleek eta gurasoen edo ikasleen legez eraturako elkarteen ordezkariak.

4. Ikastetxeetako gobernu-organoek, irakasleek nahiz administrazioko eta zerbitzuetako langileek beren lanbide-jardueraren bidez ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den diskrezioz erabiliko dituzte.
5. Era berean, ikastetxeetako gobernu-organoek eragotziko dute ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, ikasleen intimitateari, duintasunari, ohoreari, ospeari edo legezko interesei kalterik egin ez diezaieten.

2.2.1.4. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN BALIOESPEN OBJEKTIBOA IZATEKO ESKUBIDEA

Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten.

(Ikasleen eskubide honi buruzko guztia AJA honetan agertzen da 2.10 atalean)

2.2.1.5. ESKOLA- ETA LANBIDE-ORIENTAZIORAKO ESKUBIDEA

1. Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexuan edo bestelako zirkunstantziaren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.
2. Eskubide horrek honako hau hartzen du barnean: ikasleei, ikastetxean sartzen direnetik eta batez ere 6. mailan, hezkuntza-orientazioko zerbitzuak ematea, aukera egokiak eginez, ikasle bakoitzaren trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetarako ikasketa-planik egokiena aukeratzeko.

2.2.1.6. OSOTASUN, NORTASUN ETA DUINTASUN PERTSONALEKO ESKUBIDEA

1. Ikasleek beren osotasun fisikoa eta morala errespetatu diezaieten eskubidea dute, baita beren nortasun eta duintasun pertsonala ere, eta ez zaie inoiz tratatu iraingarri edo laidogarria emango. Era berean, zeinahi eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.
2. Jokabideren bat zuzendu behar zaienean, arbitrariotasunik gabeko neurrien bidez zuzenduko zaie, eta Dekretu honetan ezarritako berme formalen arabera betiere. Era berean, ikasleei ezin izango zaie sekula zigor fisiko edo moralik ezarri.

3. Ikasleen jarduera akademikoa segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egin beharko da. Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek zehaztu beharko dute jolastokiak nola zaindu behar diren, eta ikasleek zalantza izpirik gabe jakin beharko dute unean-unean zein irakaslerengana edo ikastetxeko zein arduradunengana edo zein agintari akademikorengana jo dezaketen edozein eraso fisiko edo moralen aurkako babes berma diezaaien.
4. Ikastetxeetako gobernu-organoek, irakasleek eta ikastetxeko gainerako langileek berdinen arteko tratatu txarrak ezabatzen lagunduko dute, ezarritako prozedurei jarraiki eta zuzendaritari haren berri emanez, hark Hezkuntza Administrazioari jakinaraz diezaion.

2.2.1.7. KONTZIENTZIA-ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA

1. Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijiosinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatu diezazkieten.
2. Eskubide horren berme gisa, ikasleek, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari, eta, hala badagokio, ikastetxearen nondik norakoari buruzko informazio nahikoa izan beharko dute matrikulatu aurretik.
3. Ikasleek erlijioaren eta moralaren arloan beren sinesmenekin bat datorren irakaskuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatuko dute ikastetxeak, baita horrelako irakaskuntzarik ez jasotzekoa ere, eta aukera horrek ez du diskriminaziorik eragingo. Era berean, ikastetxeetan ematen den irakaskuntzak inolako manipulazio ideologikorik ez izatea bermatuko dute ikastetxeek.

2.2.1.8. ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA IKASTETXEETAN

1. Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritziak askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko.
2. Gela bakoitzeko tutoreak zehaztuko du idazki bidez adierazpenerako eskubidea baliatzeko modua eta espazioak.

2.2.1.9. PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden araei jarraiki.

2.2.1.10. INFORMAZIOA ERABILTZeko ESKUBIDEA

1. Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Ikastetxeko tutoreek ikasleei haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete, beren adinaren arabera.

2.2.1.11. AUKERA-BERDINTASUNERAKO ESKUBIDEA

1. Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, batez ere hezkuntza-premia bereziak badituzte, hain zuzen ere Hezkuntza Sistemari sartzeko eta bertan irautea zailtzen dizkieten hezkuntza-premia bereziak badituzte.
2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskubide hori bermatzeko, ikasleen premiei egokitutako laguntza-politika ezarriko du, baita integratzeko eta hezkuntzapremia berezietan erantzutera bideratutako neurri hezigarriak ere.
3. Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleek beren beharren arabera arreta jaso beharko dute matrikulatuak dauden ikastetxeetan, ikastetxearen berezko baliabideekin eta Hezkuntza Administrazioak ikastetxearen esku jarri dituen baliabideekin.
4. Ikastetxeek beste zerbitzu publikoekin eta udaletako, lurraldeetako nahiz Autonomia Erkidegoko beste zerbitzuekin harremanak izango dituzte arlo soziokulturalen eta arlo ekonomikoan bereziki beharretuak diren ikasleen premiei erantzuteko.

2.2.1.12. GIZARTE-BABESERAKO ESKUBIDEA

1. Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familiaezbeharren edo istripuen kasuan.
2. Derrigorrezko mailatan diharduten ikasleek beren eskola-errendimendua ziurtatzeko behar den laguntza jasotzeko eskubidea dute. Laguntza hori ikastetxearen bidez, Oinarrizko Urrutiko Hezkuntzako Ikastetxeen bidez, edo Lurralde Ikastetxeen esku dauden Ospitaleko, Etxez Etxeko eta Terapeutikako Hezkuntza-arloko Arretarako baliabideen bidez.
3. Ikastetxeak babes-neurriak hartu beharko dituzte berdinaren arteko tratatu txarren kasuetan eta bereziki eskola-jazarpenen eta emakumeen aurkako eraso kasuetan.

Beharrezkotzat jotzen badute, jazarleak ikastetxez aldatzea berehala proposatu dezakete edo, jazarpenaren biktimek nahiago badute eta hala eskatzen badute, biktimek lekuz alda ditzakete. Nolanahi ere, behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea izango dute jazarpenaren biktimek.

Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea

1. Ikasle guztiek jakin beharko dituzte euri eta gainerako kideei indarreko ordenamendu juridikoan aitortzen zaizkien eskubideak. Era berean, eskubide horiek errespetatzen eta baliatzen ikasi beharko dute, betiere duten adinak horretarako aukera ematen badie.
2. Beren eskumenen eremuaren barruan, ikastetxeko Gobernu Organoek, baita irakasleek ere, aurreko artikuluetan adierazitako eskubide guztiak eta Legeek nahiz Nazioarteko Itunek ikasleei aintzat hartzen dizkieten eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuko dute. Ikasle adingabeei dagokienez, berezi babestuko dira Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak nahiz Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak aintzat hartzen dituztenak, eta, oinarrizko printzipio gisa, haurren eta nerabeen interes gorenari emango zaio lehentasuna aldi bereko beste edozein interes legitimoren aurrean.
3. Era berean, ikastetxeetako Gobernu Organoek eta irakasleek eskubide horiek legeek ezarritako mugen barnean baliatuko direla zainduko dute, eta ikasleen arteko harremanetan ezein eratako diskriminazio-egoerarik gerta ez dadin arduratuko dira, hain zuzen ere, honako hauek arrazoitzat hartuta diskriminaziorik gerta ez dadin: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edota beste edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

2.2.2. IKASLEEN BETEBEHARRAK

2.2.2.1. IKASTEKO BETEBEHARRA

1. Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak alaitz gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

2. Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez dituzte baliatuko.

2.2.2.2. PRESTAKUNTZA-JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BETEBEHARRA

Ikasle guztiek hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

2.2.2.3. BERTARATZEKO BETEBEHARRA

1. Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.
2. Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago, 201/2008ko ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuko 14.3 artikuluan ezarritakoaren aurka joan gabe.

2.2.2.4. BIZIKIDETZA ERRAZTEKO BETEBEHARRA

1. Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritza eta orientazioak errespetatuz.
2. Horretarako, ikasleek beren ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako bizikidetza arauak jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazka konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartasunez jokatzuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.
3. Ikasleek bizikidetzarentzat aurkakakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakaslek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratzuz.

2.2.2.5. NORBERAREN KONTZIENTZIA-ASKATASUNA ERRESPETATZEKO BETEBEHARRA

1. Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoitzat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
2. Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.
3. Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira.

2.2.2.6. ESKOLAKO ARAUAK ERRESPETATZEKO BETEBEHARRA

1. Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiko edo Barne Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala badagokio, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere.
2. Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta, era berean, eskola-eremutik kanpo egin daitezkeen arteeretan. Eskolatik kanpo ateratzeko ikasleen bila etorri beharko dira beren gurasoak edo legezko ordezkariak.
3. Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastetxeko irakasle ez direnen jarraibideak bete beharko dituzte.
4. Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

2.2.2.7. INSTALAZIOAK ERRESPETATZEKO BETEBEHARRA

1. Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.
2. Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan.
3. Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

2.2.3. DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

2.2.3.1. XEDAPEN OROKORRAK

Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu.

Dokumentu honetan ezarritako betebeharretako bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute horretarako ezarri diren neurrietako bat berehala eta ahoz baliatuz. Neurri horiek aplikatu behar dira pertsonak edota objektuek balizko kalteak jaso ez ditzaten behin-behineko neurri ezarrien aurka egin gabe.

Salbuespen gisa, irakaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori irakaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritik.

2.2.3.2. JOKABIDE-MOTAK

2.2.3.2.1. JOKABIDE DESEGOKIAK

1. Hona hemen jokabide desegokiak zerrenda:
 - a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
 - b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.
 - c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
 - d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
 - e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
 - f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
 - g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
 - h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
 - i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
 - j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
 - k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
 - l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntzako komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

2.2.3.2.2. IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

1. Hona hemen ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zerrenda:
 - a) Ikastetxeko lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

- b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- c) Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietarako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- d) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- e) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- f) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- g) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- h) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- i) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.
- j) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- k) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- l) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
- m) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

2.2.3.2.3. IKASTETXEKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK

1. Hona hemen bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zerrenda:
 - a) Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntzako komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
 - b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
 - c) Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
 - d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
 - e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
 - f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratatu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
 - g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
 - h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.
 - i) Ordena nahasten duten jokabideak eskolako jangelan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
 - j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, alde aurretik haien, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.
 - k) Ikaskide edo ikastetxeko beste langileen argazkiak interneten zintzilikatzea, baimenik gabe.
 - l) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

- m) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.l) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
- n) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

2.2.3.2.4. IKASTETXETIK KANPO EGINDAKO JOKABIDE EDO EGINTZENGATIKO ERANTZUKIZUNA

Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jangela- edo garraiozerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

2.2.3.3 NEURRI ZUZENTZAILE HEZITZAILEAK

2.2.3.3.1. JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA

1. Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte jokabide desegokiak:
 - a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
 - b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
 - c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeako jarduerak egitea.
 - d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
 - e) Zuzendariaren, ikasketaburuaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.
 - f) Era desegokian erabiltzeagatik apurtutako materiala ordezkatzeko edo ordaintzea.

2.2.3.3.2. IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
 - b) Ohartarazpen idatzia.
 - c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
 - d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.
 - e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.
 - f) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
 - g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
 - h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.
 - i) Jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.
 - j) Era desegokian erabiltzeagatik apurtutako materiala ordezkatzeta edo ordaintzea.
2. 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

2.2.3.3.3. IKASTETXEKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:
 - a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio,

eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

- b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
 - c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
 - d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.
 - e) Nahita apurtutako materiala ordezkatzera edo ordaintzea.
2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

2.2.3.3.4. IKASTETXEZ ALDATZEKO PROPOSAMENA

1. Ikastetxe-aldaketa ondoko kasu hauetan proposatu ahal izango da:
 - a) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere 2.2.3.2.3. ataleko 1.m) idatz-zatian zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeik eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.
 - b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.
 - c) Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.
 - d) Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.
2. Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

2.2.3.3.5. ETENGABEKO EBALUAZIOA EGITEKO EZINTASUNA BERTARATZEHUTSEGITEAK BEHIN ETA BERRIZ EGITEAGATIK

1. Aurreko artikuluen arabera dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera bazter utzi gabe, bertaratze-hutsegite ugari egin dituztela-eta etengabeko ebaluaziorako ikastetxeak onartutako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.
2. Ikastetxeek ezarriko dute proba horien nolakotasuna, betiere dagokion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

2.2.3.3.6. OINARRIZKO GAITASUN SOZIAL ETA HIRITARRA EBALUATZEAREN ONDORIOAK

Gizarte -eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoek kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

2.2.3.3.7. IZAN DAITEZKEEN KALTEENGATIKO ERANTZUKIZUNA

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larriz edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara-arauen aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren ordez, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.

2.2.3.3.8. NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPORZIONALTASUNEZ APLIKATZEN DIRELA BERMATZEKO IRIZPIDEAK

1. Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:
 - a) Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.
 - b) Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.

- c) Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuko 3.3 artikuluan zehazturiko oinarritzko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.
 - d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.
2. Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurrizuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:
- a) Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
 - b) Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
 - c) Materialari edo ondasun higigarriei edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
 - d) Jendaurrean barkamena eskatzea.
 - e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
 - f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.
3. Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:
- a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
 - b) Kaltea nahita egina izatea.
 - c) Kaltea apropos egitea edo alde aurretik prestatu ondoren egitea.
 - d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.

2.2.4. JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

2.2.4.1. XEDAPEN OROKORRAK

1. Ikastetxeetako zuzendariak ahalegina egingo dute bizikidetzaz- arazoak konpontzeko, dokumentu honetako 2.2.5 atalean araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.
2. Lehenetsunez, zuzendariak ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezten: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere

eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.

3. Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).
4. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilia zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

2.2.4.2. PROZEDURARIK GABEKO NEURRI HEZITZAILEAK

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo dute ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.
2. Ezingo da horrela jokatu, salbuespenetzko egoera hauetan:
 - a) 2.2.3.3.4. atalean adierazitako jokabideak eman badira.
 - b) Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

2.2.4.3. PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA ADISKIDETZEA GERTATU DELAKO

1. Adiskidetzetik gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzeta izango da, gertakari hauek ematen badira:
 - a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkako delakoa edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.
 - b) Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
 - c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.
 - d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2. Adiskidetzak ez du bertan behera utziko prozedura 2.2.3.3.4. atalean adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

2.2.4.4. PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA KALTEA KONPONDU DELAKO

1. Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.
2. Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 2.2.3.3.4. atalean adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

2.2.4.5. PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA JOKABIDEA FAMILIA-EREMUAN ZUZENTZEAGATIK

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 2.2.3.3.4. atalean adierazitakoren bat baldin bada.

2.2.4.6. NEURRI ZUZENTZAILEAK ETEN, ARINDU EDO BARKATZEA

1. Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikikoa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela alde aurretik egiaztatuz gero.
2. Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerortzetat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.
3. Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

2.2.4.7. BIZIKIDETZARAKO KONPROMISO HEZIGARRIAK

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzarik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzaren konpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu beharko dute. Bizikidetzaren konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere.
2. Bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.
3. Bizikidetzaren konpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

2.2.5. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

2.2.5.1. XEDAPEN OROKORRAK

Kontrakoak diren eta bizikidetzaren kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko kapitulu honetan arautu diren prozeduretako bat erabili behar da derrigorrez, betiere, 3.2.4. kapituluaren jaso diren aukerako bideak aplikatzea posible izan ez denean.

2.2.5.1.1. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO ORGANO ESKUMENDUNA

1. Ikasgelan, ikastetxeko beste eremuetan edota ikastetxetik kanpo ikasleak haien zainketa zuzenaren pean dauden bitartean, ikastetxeko irakasle guztiek ikasleen jokabide desegokiak berehala zuzentzeko eskumena dute.
2. Irakasle guztiek eskumena dute haien aurrean kontrakoa den edo bizikidetzaren kalte larriak eragiten dituen jokabidea gertatzen den unean bertan ikasleari errieta egiteko. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana, ikasketaburuarengana edo une horretan ikastetxearen arduradun den zuzendaritzako taldeko kideren batengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.
3. Zuzendaria da kontrakoak diren edota bizikidetzaren kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa.

4. Eskola Kontseilua da dekretu honek ezartzen dituen mugetan zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

2.2.5.1.2. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDUREN EPEAK

1. Kapitulu honetan arautu diren prozedurekin lotura duten egintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adieraziko dira.
2. Ondorio horietarako, eskola-egunak hauek izango dira: egun baliodun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera, oporraldiak izan ezik.

2.2.5.1.3. DENBORA IGAROTZEAGATIK PROZEDUREI EKITEKO DEBEKUA

1. Ondoko kasu hauetan, ezin izango zaio inolako prozedurari ekin, ezta desegokiak diren, kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideen berri edukita ere:
 - a) Bizikidetzan kalte larriak eragin dituen jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.
 - b) Bizikidetzaren kontrakoa den jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei baino gehiago igaro direnean.
 - c) Jokabide desegokia osatzen duten ekintzak edo ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.

2.2.5.1.4. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO UNEA

1. Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira:
 - a) Kontrakoak diren edo bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak, erreklamazioak edo helegiteak jartzeko epea amaitzen den unetik aurrera.
 - b) Jokabide desegokiak zuzentzeko zer neurri aplikatuko diren erabakitzen den unetik aurrera.
2. Ondoko kasu hauetan ezin izango da neurri zuzentzailerik ezarri:
 - a) Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro badira.

- b) Bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.
- c) Jokabide desegokien kasuan, hogeitun egun baino gehiago igaro badira.

2.2.5.1.5. IKASTETXEAREN BARRUAN JAKINARAZPENAK NAHIZ ERREKLAMAZIOAK EGITEKO MODUA ETA EPEA

1. Dekretu honetan arautu diren prozeduren egintzei buruzko jakinarazpenak jakitera eman behar den egintza gertatu eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik egin beharko dira.
2. Kapitulu honetan arautu diren prozeduretan jaso diren erreklamazioak jartzeko epea hiru egunekoa izango da.
3. Dekretu honetan arautu diren prozeduren barruan jaso diren eta hezkuntzako komunitateko kideei helarazi behar zaizkien jakinarazpenak nahiz zitazioak jasotzaileak mezua jaso duela argi jakiteko moduan igorri behar dira.

2.2.5.1.6. DEKRETU HONETAN ARAUTU DIREN PROZEDURETAKO DATU PERTSONALAK LANTZEKO, BABESTEKO ETA EZEZTATZEKO BIDEA

1. Jokabide zuzenduei buruzko datuak dagokion ohiko edota ohiz kanpoko prozeduraren agirieta soilik ageriko dira. Datu horiek ez dira ikastetxeko fitxategi edota erregistro iraunkorrera transferituko eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat zaindu eta aldi baterako beste ikastetxe batera eraman ahal izango dira.
2. Edonola ere, dekretu honek arautzen dituen prozeduretan sortu diren agiriak suntsitu behar dira. Horrela, bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu zeneko ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira. Eta, bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu eta hurrengo ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.
3. Prozeduraren izapide guztietan prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak babestu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere.

2.2.5.1.7. ERREKLAMAZIOAK ETA HELEGITEAK

1. Zuzendariak emandako ebazpenaren aurka, ikasleak edo, haren lekuan, haren gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioa aurkeztu ahalgo dute Eskola Kontseiluan. Kontseilu horrek erreklamazioa berrikusi ahalgo du, 2.2.5.3.8. atalean ezarri denari jarraiki.
2. Eskola Kontseiluaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahalgo dio dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari hiru egun balioduneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
3. Erreklamazio ezestearen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jar diezaioke Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

2.2.5.2. JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA

2.2.5.2.1. JOKABIDE DESEGOKIAK ZUZENTZEKO AHOZKO PROZEDURA

1. Jokabide desegokiak berehala eta ahoz zuzenduko dira.
2. Nolanahi ere, jokabide desegokia zein izan den eta aplikatu izan diren neurri zuzentzaileak idatziz jaso ez badira eta, ikasle adingabeen kasuan, ikasleen gurasoak edota legezko ordezkariak jakinaren gainean jarri ez badira, ezin izango da 2.2.3.2.3 ataleko 1m) puntuan aurreikusitakoa aplikatu.
3. Kasu guztietan, jokabide desegokiei eta jokabide desegokiak zuzentzeari buruz idatziz edota euskarri informatikoetan jaso diren agiriak ikasturte akademikoa amaitzean suntsituko dira.

2.2.5.3. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA

2.2.5.3.1. OHIKO PROZEDURAREN ERABILERA

1. Ohiko prozedura erabili ahalgo da zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten gertakariak nahiz gertakari horien egilea nor izan den bistakoa denean.
2. Prozedura horri ofizioz ekingo zaio eta idazki bidez egingo da. Prozedurak, gutxienez, honako zati hauek izango ditu: hasierako egintza; ikasleak eta, hala badagokio, ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak, esateko zer duten entzutea; eta prozeduraren amaiera ekarriko duen erabakia.

2.2.5.3.2. HASIERAKO EGINTZAREN GUTXIENENKO EDUKIA

1. Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:
 - a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
 - b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batean kokatzea.
 - c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplikatu daitezkeen neurriak, Dekretu honetan zehaztu direnen artean.
 - d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitze eskumena duen organoa zein den, eta organoari horretarako ahalmena esleitzen dion araua.
2. Era berean, dekretu honetan aurreikusitako diren baketzegatiko edo konpontzegatiko eteteak jasoko dira.

2.2.5.3.3. HASIERAKO JAKINARAZPENA ETA ALDEZ AURRETIKO ENTZUNALDIRAKO ZITAZIOA

1. Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.
2. Hasierako jakinarazpenarekin bat, ikaslearen alde aurretiko entzunaldirako zitazioa bidaliko da, baita, hala badagokio, haren gurasoen edota legezko ordezkarien entzunaldirako zitazioa ere. Mintzagai dugun zitazioan, halaber, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

2.2.5.3.4. BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK

1. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, bere iritziz beharrezkoa denean eta bizikidetzari eragindako kaltearen larritasunaren arabera, zuzendariak behin-behineko zenbait neurri ezarri ahal izango ditu ikastetxean jarduerak normaltasunez gauzatu direla bermatzeko. Neurri horien artean ondoko bi hauek leudeke: batetik, ikasleak eskoletara joateko duen eskubidea aldi baterako etetea, ikasleari eskola zehatz batzuetara edo eskola guztietara joatea debekatuz; bestetik, ikaslea behin-behinekoz taldez aldatzea.
2. Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte bere horretan mantendu ahal izango dira. Behin-behineko neurriak, bidenabar, ezin izango dira aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak baino latzagoak izan. Nolanahi ere, ikaslea ikastetxera edo eskoletara bertaratzeko eskubideaz gabetuta egon den denbora oso-osorik zenbatuko da, aplikatutako neurri zuzentzailea betetzeko garaian.

3. Ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adinez txikiak badira, haien guraso edo legezko ordezkarietara jakinaraziko zaie behin-behineko neurri ezarriak zein diren.

2.2.5.3.5. ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA

1. Entzunaldiaren izapidearen bidez, entzuna izateko eta bere burua defendatzeko ikasleak duen eskubidea bermatu ahal izango da. Horrenbestez, hasierako egintzaren edukiaren gain nahiz ikastetxeak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoaren gain ikasleak egoki deritzon alegazioak egiteko aukera izango du.
2. Ikaslearen entzunaldia egitea derrigorrezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina dena delakoa izanik eta hartu beharreko neurria hartuta ere. Adinez txikiak diren ikasleek entzunaldian beren gurasoek edo legezko ordezkarietara laguntzeko eskubidea dute. Azken horietan, nahi izanez gero, beren alegazioak egin ahal izango dituzte, betiere, ikasleak bereak egin ondoren.
3. Ondoko kasu hauetan, ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkarietara entzunaldia egin beharko zaie derrigor:
 - a) Ikasle adingabe horietara leporatzen zaieen jokabidea ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragin dituzte.
 - b) Bizikidetzaren kontrako neurriak direnean, betiere, aplikatu litezkeen neurri jakinarazien artean 2.2.3.3.2. atalean 1.g), 1.h) eta 1.i) zehaztutakoren bat badago.
4. Entzunaldiaren izapidea hasierako egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da, betiere, gurasoen edo legezko ordezkarietara entzunaldia egitea derrigorrezkoa ez bada. Hala ez bada, entzunaldia, gehienez ere, hiru eguneko epean egin beharko da. Interesdunak entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak bere martxari eutsiko dio.
5. Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira.

2.2.5.3.6. APLIKATU BEHARREKO NEURRI ZUZENTZAILEA ERABAKITZEA

1. Hartutako erabakia idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatzi behar izanez gero hartutako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez, honako hauek agerraraziko dira:

- a) Oro har, ikasleei edo, ikasle adingabeen kasuan, haien legezko ordezkariari ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak edo bizikidetzaren kontrako jokabideak zein diren jakinarazi zaien modua.
 - b) Bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea osatzen duten gertakizunen deskribapena.
 - c) Gaitzesten zaion portaera ikasleari argi eta garbi jakinarazi zaiola ziurtatzea, zuzendu nahi den jokabidearen tipifikazioan portaera hori jasota dagoela azalduz.
 - d) Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekukoen deklarazioak ere.
 - e) Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarririk, aringarririk, edo ikaslea errugabetzeko zirkunstantziarik ba ote dagoen ala ez.
 - f) Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri horiek hasierako egintzaren jakinarazpenean aukerakotzat jo direnak izango dira, ez besterik.
 - g) Neurriak zer unetatik aurrera aplikatu behar diren. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.
 - h) Eskola Kontseiluaren aurrean aipatu erreklamazioa aurkezteko epea.
2. Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskolaeguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.
 3. Zuzendariak hartutako erabakia helarazi beharko dio Eskola Kontseiluari eta ikastetxeko irakasle klaustroari, horren berri izan dezaten.

2.2.5.3.7. DAGOKION HEZKUNTZAKO LURRALDE ORDEZKARITZARI, ETA, HALA BADAGOKIO, DAGOKION GIZARTE ZERBITZUEI JAKINARAZTEA

1. Neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzentzeko ezartzen den guztietan, idazki horren kopia bat helaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkariari. Honako kasu honetan ere helaraziko zaio idazkiaren kopia: bizikidetzaren aurkako jokabidea zuzentzeko ezartzen bada, neurri zuzentzaileak ikastetxera bertaratzeko edo garraio- eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea badakar.
2. Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak Foru Aldundietako edo Udaletako Gizarte Zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, aplikatu zaien neurria Zerbitzu horiei helarazi beharko zaie, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.

3. Artikulu honetan xedaturikoa betetzearen ondorioz egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentzialtasun-eskubidearen eta erreserba-betebeharraren babespean daude.

2.2.5.3.8. ESKOLA KONTSEILUAREN AURREAN ERREKLAMAZIOA JARTZEA

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eskatuz gero, Eskola Kontseiluak zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahalko du, eta, hala badagokio, dagokion neurriak proposatuko ditu.

2.2.5.3.9. ESKOLA KONTSEILUAREN ERABAKIA

1. Batetik, zein neurri aplikatu behar den erabakitzeko idazki arrazoitua eta, bestetik, ikaslearen edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoen edo legezko ordezkarien erreklamazioan jasotako alegazioak kontuan hartuta, Eskola Kontseiluak neurri hori berretsiko du, betiere dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera dela irizten badio, bestela, erabakia berriz aztertzea erabakiko du.
2. Eskola Kontseiluak bere eskumenak eskuordetu ahalko dizkio ikastetxeak Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian ezarrita dituen ordezkori batzordeei edo horretarako eraturako batzorde bati, betiere Eskola Kontseiluko kideek erabakia gehiago osoz onartzen badute. Nolanahi ere, dekretu honen aplikazioarekin lotutako funtzioak betetzeko, Eskola Kontseilurako legez ezarritako gurasoen, ikasleen eta irakasleen proportzioak errespetatu beharko dira, eta horretarako boto haztatu sistema ezarri ahalko da.
3. Eskola Kontseiluak gehienez ere hiru eguneko epean hartu beharko du bere erabakia.

2.2.5.3.10. JAKINARAZPENA

1. Eskola Kontseiluaren erabakiaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz berrikusten den aintzat hartu gabe, eta, era berean, Hezkuntzako Lurralde ordezkariari erreklamazioa aurkezteko epea adieraziko da.
2. Eskola Kontseiluaren hitzarmena Lurraldeko Ordezkariari eta dagozkion Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie, betiere, 2.2.5.3.7.atalean jasotako kasuetan.

2.2.5.4. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIAK ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO OHIZ KANPOKO PROZEDURA

2.2.5.4.1. OHIZ KANPOKO PROZEDURA NOIZ ERABILI BEHARRA DAGOEN

1. Ohiz kanpoko prozedura ondoko kasu hauetan erabili beharko da:
 - a) Zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten ekintzak edo ekintza horien egilea nor izan den kaltetuak edo hirugarren pertsonen salatutakoaren bidez soilik ezagutzen direnean, edota zeinahi arrazoirengatik, ekintza nahiz egilea bistakoak ez direnean.
 - b) 2.2.3.3.4. atalean aipatzen diren kasuetan.
 - c) Zuzendariak, kasuaren inguruabarrak ikusirik, neurri zuzentzaile egokia hartzeko ohiz kanpoko prozedura egokiagoa dela iritzi duenean.

2.2.5.4.2. OHIZ KANPOKO PROZEDURARI EKITEKO EPEA

Zuzendariak prozedurari ekin beharko dio. Prozedurari idatziz ekin behar zaio, gehienez ere, ikastetxeko bizikidetzaren kontrako jokabidea edo bizikidetzaren horretan kalte larriak eragiten duen jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutu eta hiru egunetara.

2.2.5.4.3. HASIERAKO EGINTZAREN GUTXIENENKO EDUKIA

1. Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:
 - a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena; jokabide hori kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzaren kalte larriak eragin ditzaketan jokabideen artean egon daitekeeneko zehaztapena; eta neurri zuzentzaileak aplikatu behar izaneko aukera.
 - b) Izapidegilea izendatzea.
 - c) Dokumentu honetako 2.2.4. atalean jaso diren eta aplikatu litezkeen aukerako bideak erabiliz prozedura eteteko aukera.
2. Izapidegilea izendatzea:
 - a) Zuzendariak, ikastetxeko irakasleen artean, izapidegilea izendatuko du.
 - b) Irakasle izendatuak izendapena onartu beharko du, betiere, abstenitzeko erregelamenduzko arrazoirik gertatzen ez bada. Erregelamenduzko ziorik gertatzen bada, irakasleak izendapenari uko egin beharko dio.
 - c) Izendapenetik kontatzen hasita egun bateko epean, izapidegileak abstentziodazkia aurkezten badu, emandako arrazoiak aztertu eta beste

izapidegile bat izendatu beharko du zuzendariak, arrazoi justifikatuak daudela iritziz gero. Bestela, hasierako izendapena berretsiko du.

2.2.5.4.4. HASIERAKO EGINTZAREN NAHIZ BEHIN-BEHINEKO BALIZKO NEURRIEN JAKINARAZPENA

1. Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.
2. Zuzendariak behin-behineko neurriak ezarriko balitu, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkie, betiere, ohiko prozedurari buruzko 2.2.5.3.4. atalean zehaztu diren baldintzetan.

2.2.5.4.5. IZAPIDEGILEA ERREFUSATZEKO AUKERA

1. Ikasleak edo, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak izapidegilea errefusatu ahal izango dute, betiere, izapidegileari uko egiteko arauzko arrazoietako bat gertatzen bada.
2. Mintzagai dugun jazoera gertatuko balitz eta izapidegileak uko egiteko arrazoiak onartuko balitu, izapidegile berria izendatuko litzateke. Izapidegileak ez baditu onartzen ezesteko arrazoiak, zuzendariak bi aldeek emandako arrazoiak aztertu eta —aldez aurretik egoki iritzitako txosten eta aholkuak jasota— hiru eguneko epean ebatzi beharko du.
3. Zuzendariaren ebazpena ikasleari edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

2.2.5.4.6. IZAPIDEGILEAREN JARDUNAK

Izapidegileak ofizioz gauzatuko ditu ikasle interesdunari leporatzen zaion jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki deritzon ikerketa guztiak. Era berean, kontuan izan beharko ditu ikasleak entzunaldiaren aurretik ekar ditzakeen alegazioak, agiriak edo epaiketarako zeinahi elementu.

2.2.5.4.7. JAKINARAZPENA FISKALTZARI

1. Izapidegileak jokabide nahiz gertakari egotziak delitutzat edota falta penaltzat har daitezkeela uste badu, halaxe jakinarazi beharko dio zuzendariari, hala badagokio, kasua Fiskaltzaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jartze aldera.

2. Ikaslea adingabea bada, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioak betetze aldera, ondoko hauek jakinarazi beharko dira ere:
 - a) Hala bada, hezkuntzaren eremuan jokabideak zuzendu izana.
 - b) Hala bada, baketzea gertatu izana.
 - c) Hala bada, konponketa gertatu izana edo konpontzeko konpromisoa hartua egotea.
3. Fiskaltzari igorritako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio zuzendariak dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari.

2.2.5.4.8. ENTZUNALDIRAKO ZITAZIOA

1. Izapidegileak ikaslea zitatuko du entzunaldia egin dezan. Ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari ere jakinaraziko die. Zitazioan, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira. 2.2.5.3.5. ataletik 3. artikuluan zehaztutako kasuetan, ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari derrigorrez hitzordua emango zaie.
2. Zitazioarekin idatzi bat bidaliko da, zeinean honako hauek agertuko diren:
 - a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
 - b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batekin bat datorren.
 - c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplikatu litezkeen neurriak, Dekretu honetan zehaztu direnen artean.
 - d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitze eskumena duen organoa eta organoari ahalmen hori esleitzen dion araua.
 - e) Kontrako proba-baliabideak proposatzeko aukera.

2.2.5.4.9. ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA

1. Entzunaldiaren izapidea gauzatzeko, 2.2.5.3.5. atalean ohiko prozedurari buruz esandakoa aplikatu daiteke.
2. Gainera, ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari prozedurako agiri guztiak erakutsi behar zaizkie -betiere, indarrean dauden legeak ezartzen duten zehaztasunaz- egoki deritzotena alegatu dezaten eta egoki deritzeten proba-bitartekoak proposatu dituzten.

2.2.5.4.10. EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, izapidegileak frogak -aldez aurretik zeudenak, bereziki lekukoen deklarazioak, eta ikasleak edo guraso edo legezko ordezkariak aurkeztu ahal izan dituztenak- balioetsiko ditu, baita aurkeztutako alegazioak ere; gertakizunak argitzeko eta balioesteko beharrezko iritzitako jardunak gauzatu ditu, eta ondorioen bat ateratzen duenean, ebazpenproposamena idatzita aurkeztuko du.
2. Proposamena idatzi ostean, horren berri emango zaio ikasleari. Horretarako, entzunaldirako ezarri diren epe nahiz baldintza beretan deituko zaio, berriz, ikasleari. Alegazio berririk izanez gero, jaso egingo dira, eta proposamena zuzendariari helaraziko zaio, aldaketarik gabe eta jasotako alegazio berriekin batera.

2.2.5.4.11. OHIZ KANPOKO PROZEDURA AMAITZEKO EPEA

1. Ohiz kanpoko prozedurari ekingo zitzaiola interesdunari eta, hala balegokio, interesdunaren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi zitzaien egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere hamabost eguneko epean amaitu beharra dago ohiz kanpoko prozedura.
2. Bi asteko epe horri abstentzioak edo arbuiatzeak ebazteko erabili diren egunak gehituko zaizkio, baita ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragin dituzten eta beharrezkoak ez diren atzerapenetan galdu diren egunak ere.
3. Ikertu beharreko ekintzen konplexutasunak edo antzerako inguruabarrek hala eskatuko balute, zuzendariak gehienez ere hamar egunetz luzatu ahal izango du prozedura amaitzeko epea.
4. Epea luzaturik ebazpen proposamenik egongo ez balitz, prozedura igarotzat joko da, betiere, interesdunak edota haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragindako atzerapenek sortua ez bada. Igarotze horrek ez du eragotziko delitu edo falta penaltzat har daitezkeen gertakariak edo ez-egiteak Fiskaltzari jakinarazi beharra, betiere, zigor arloan gertakaria edo ez-egitea preskribatu ez bada.

2.2.5.4.12. ESPEDIENTEAREN EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA

1. Ebazpenak arrazoitua izan beharko du beti, eta honako hauek bildu beharko ditu: ikasleari leporatu zaizkion gertakizunak; neurri zuzentzailea(k) ezartzeko arrazoiak; erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak, hala badagokio; neurrien edukia eta neurriak zer unetatik aurrera aplikatuko diren; erreklamazioa zer organori aurkeztu behar zaion, eta azken hori aurkezteko epea.

2. Ikasleari eta, hala badagokio, ikaslearen guraso edo legezko ordezkariari ebazpenaren jakinarazpena helaraziko zaie.
3. Ebazpen hori Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klustroari zuzendariak egoki deritzon moduan jakinaraziko zaie
4. 2.2.5.3.7. atalean zehaztu diren kasuetan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariari eta, hala badagokio, dagozkion Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie ebazpena.

2.3. GURASOENTZAKO ARAUAK

2.3.1. GURASO EDO TUTOREEN ESKUBIDEAK

1. Beren seme-alaba edo zainpekoak legeak arautzen dituen prinsipio orokorretan oinarritutako heziketa jasotzeko eskubidea.
2. Guraso Elkartek sortu edo haietan parte hartzeko eskubidea.
3. Beren seme-alaben edo zainpekoen heziketaz irakasleekin hitz egiteko eskubidea, bereziki irakasle-tutorearekin.
4. Ikastetxeko aginte organoetako hautagai edo hauteslea izateko eskubidea.
5. AJA honek ezarritako bideak erabiliz, irakaslea/tutorea/zuzendaritza/ ikuskaritza, beren seme alaben onerako egokiak erizten dituzten eskakizunak edo kexak azaltzea, betiere zentzunez eta gizabidez.
6. Eskola Kontseiluak onartuta eta hezkuntza jarduerarako oztoporik ez diren eskolaz kanpoko ekintzetan Ikastolako instalazioak erabiltzeko eskubidea.

2.3.2. GURASO EDO TUTOREEN BETEBEHARRAK

1. Beren seme-alaben edo zainpekoen heziketa eta formazioa guraso eta tutoreen oinarritzko betebeharra dugu.
2. Eskolako heziketa lanetan parte hartu eta elkarlanean aritzea.
3. Irakasleek, tutoreak edo zuzendaritzak deituta ikastetxean bertaratzea.
4. Seme alaben aurrean ikastetxeaz gaizki esaka ez aritzea.
5. Beren seme-alabak ikasketa bidean animatzea.

6. Bai eskola jarduetarako bai eskolaz kanpoko ekintzetarako beren seme-alabek behar duten materialaz arduratzea edo behar izanez gero, dirua jartzea.
7. Beren seme-alabek ikastetxeko materiala, altzariak eta instalazioak modu egokian erabil dezatela sustatzea irakastaldearekin elkarlanean.
8. Beren seme-alabengan eskola elkarteko beste kideekiko errespetua bultzatzea.
9. Beren seme-alabak eskolara txukun eta garbi bidaltzea eta egindako huts egiteak edo berandu etortzeak idatziz justifikatzea.
10. Bisita tokiak eta orduak errespetatzea ikastorduetan gelatokietan sartu gabe premia handiko egoeretan ez bada.
11. Eskola ordutegia bukatutakoan, ikasleak ikastetxeko esparruan geratzen badira, gurasoak izango dira beren seme-alaben egite eta portaeraren erantzunle bakarrak. Betetzen ez bada neurriak hartuko dira.
12. **Gurasoek bere seme-alaba klaseraino eramango dute, ordutegitik kanpo ailegatzen badira.**
13. Ordutegi barruan operatiboak diren telefono zenbaki batzu ikastetxeari helaraztea, edozein arazo gertatuz gero jakinarazteko.
14. Honako AJA dagokienean errespetatzea.
15. Guraso banatu edo dibortziatuen edo elkarbizitza eten duten izatezko bikoteen kasuan Ikastetxeen Zuzendaritzak (2011ko urriaren 18an) plazaratutako jarraibide hauek martxan jarriko dira:
 - a) Guraso banatu edo dibortziatuen edo elkarbizitza eteten duten izatezko bikoteen kasuan, horietakoren batek lehen aldiz eskatzen duenean ikastetxean izena emateko edo ikastetxez aldatzeko eskatzen duenean, epaiaren edo behinbehineko neurrien autoaren xedapen-zatia aurkeztu beharko du eskabidearekin batera. Hezkuntzagaietan guraso-ahala egikaritzeari dagokionez, beste gurasoaren adostasuna beharrezkoa den ala ez jakiteko, epaiak edo autoak zer ezarri, horixe bete beharko du zuzendariak. Eskatzaileari berehala itzuliko zaio agiri hori, espedientean gorde barik. Espedientean, idazkariaren ohar bat baino ez da idatziko, hezkuntza-erabakiei buruz xedatutakoa jasotzeko.
 - b) Hezkuntza-kontuetarako erabakirik hartu ez balitz, eskabidearen kopia bidali beharko zaio beti beste gurasoari, horrek esleituta izan ala ez ikaslea zaindu eta babesteko ardura, salbu guraso-ahala esanbidez kendu zaiola jasota dagoenean. Informazio hori, hartu-agiri eta guzti, guraso horren helbidera bidaliko da posta

ziurtatuz. Izan ere, ikastetxeak helbidea ez badu, guraso horren helbidea eskatuko du eskaera izapidetzeko baldintza moduan. Bertan, adierazi egingo da eskabidea bideratu egingo dela, baldin eta, informazio hori jaso eta 10 egun baliioduneko epean, guraso hartzaileak ez badu ikastetxean aurkezten ikastetxea aldatzearen kontrako agiririk. Halakorik aurkeztuz gero, berriz, eskatzaileari berehala jakinaraziko zaio bere eskabidea bideratu egingo dela baina horretarako baimena ematen duen erabaki judiziala jaso eta gero.

- c) Seme-alabak zaindu eta babesteko ardura esleituta ez duen aita edo ama banatu edo dibortziatuak erabili egin ahal izango du seme-alabak ebaluatzekeko prozesuaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, beti ere guraso-ahala esanbidez kendu ez bazaio. Informazio hori izateko, zuzendariari eskatu beharko idatziz, eta idatzian azaldu egin beharko du zein helbidetara bidali behar zaizkion deialdiak eta jakinarazpenak. Epaiaren edo behin-behineko neurriei buruzko autoaren xedapen-zatia aurkeztu beharko da, hezkuntza-gaietarako guraso-ahala egikaritzeari buruz xedatzen duena jasotzeko, baina berehala itzuli beharko da, eta itzuli ere espedientean horren kopiarik gorde barik.
- d) Informazio-eskabidea aurreko atalean azaltzen den moduan jaso eta gero, ikastetxeak beste gurasoari posta ziurtatuz -hartu-agiri eta guzti- jakinarazio dio eta ohar bat jarriko dio zertan, labur-labur azalduko da zer jasotzen duen araubideak guraso-ahalaren hezkuntza-alderdiak erabiltzeari buruz; horrela, erkatu egingo da ea ikastetxeak duen informazioa bat datorren une horretan familia-harremanetarako indarrean dagoen araubidearekin; izan ere, judizialki aldatuta egon daiteke.
- e) Beste gurasoari informazio-eskabidearen berri eman eta gero, hura jaso eta hamar egun baliioduneko epearen barruan ikastetxean egiaztatzen ez badu aldatu egin dela seme-alabak izateko araubidea edo guraso-ahala erabiltzeko modua, eta ondorioz ezin dela eskaera onartu, orduan guraso informazio-eskatzaileari automatikoki eta aldi berean bidaliko zaio ikaslea zaindu eta babesteko ardura duen pertsonari entregatzen zaion dokumentu-informazio guztia. Era berean, tutoreak eta bestelako irakasleek ahoz eman ahal izango diote egoki deritzoten informazio guztia.
- f) Horrela definitutako egoera berez luzatuko da denboran, harik eta gurasoahalaren araubidea adierazitako zentzuan aldatu dela egiaztatu arte.

Guraso banatu edo dibortziatuen edo elkarbizitza eten duten izatezko bikoteen kasuan, nola emango dugun informazioa:

- a. Haurraren egoerari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea eta beharra bai amari bai aitari dagokiela onartzen dugu.

- ✓ Ebaluazioen txosten idatziak: gurasoei kopia bana bidaliko zaie. Semealabaren zaintza legala ez duenari, idatziz eskatu badu, bidaliko diogu eskutitz zertifikatuaren bitartez edo adostutako eran.
 - ✓ Elkarrizketa edo bileretarako deialdiak: bilera biokin batera egiten saiatuko da. Ezinezkoa izatekoan, bakoitzarekin bilera bana burutuko da.
- b. Ikastetxeko eremuan sortzen den eguneroko informazioa (komentarioak, pasadizoak, mezuak eta abar) umearekin bizi ohi den guraso edo pertsonari emango zaio. Larria izanez gero bi gurasoei esango zaie.
 - c. Eskola arloko ohiko baimenak aitak eta amak sinatuko dute.
 - d. Umea gaixotzen denean, istripua gertatzen denean edo dena delako egoera larria gertatzen bada eta umearen familiarekin lehenbailehen harremanetan jartzea beharrezkoa bada, lehenengo, umearekin bizi den pertsonari deituko zaio. Posible ez bada, umearekin bizi den gurasoak ikastetxean esango du beste arduradun baten helbidea eta telefonoa. Hori ere lortu ezean, beste gurasoari deituko zaio.
 - e. Sententziaren irakurketak ulertze arazoak sortzen baditu, ikastetxeak, Ikuskaritzaren edo Hezkuntzako Ordezkaritzako Lege Aholkularitzaren esku hartzea eskatuko du.
 - f. "Jokabide desagokiak, kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak" AJA honetako atalean arautu diren prozeduraren bat erabili beharko balitz, aitak eta amak elkarrekin edo haietako batek bakarrik esku-hartzeak aurrera eraman ditzakete, besteak onartzen badu (Kode Zibileko 156. artikulua). Salbuespenak dira kustodia partekatuta dutenean eta haietako batek guraso-agintea kenduta duenean.

2.4. IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEENTZAKO ARAUAK

2.4.1. IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEEN ESKUBIDEAK

Ikasleei, araudi honetan jasotakoaren arabera, ordena eta diziplina eskatzen zaienean beren esanak betetzea eta gurasoek eta irakasleek beraiekin begirunez eta era egokian aritzeko eskubidea, bai hitzez, bai egintzaz.

2.4.2. IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEEN BETEBEHARRAK

Bakoitzak, beren jarduetarako propio dituenak betiere ikastetxeko beharretara egokituta.

Garbiketa eta atezaintza langileen betebeharrak:

- Ikastetxeko sarrera eta irteeren zaintza eta arreta.
- Eskola ordutegitik kanpo gertatzen denaren berri zuzendaritzari ematea.
- Eraikuntzaren erabilera onaren zaintza eta arreta.
- Zuzendaritzak atezaintzan, mantenimenduan, zaintzan eta garbiketan beharrezko ikusten dituen guztiak.
- Hezkuntza elkartearen beste kideekiko errespetua azaltzea.

2.5. ELKARBIZITZARAKO ARAUAK

2.5.1. SARRERA-IRTEERAK

1. Ikasgeletako sarrera-irteera ordutegia ikasturte hasieran ezarritakoa izango da.
2. Geletako sarrera-irteerak bakoitzari dagokion sarbidetik egingo da, zarata mugatuz, beste taldeetan eragozpenik sortu ez dadin. 1., 2. eta 3. mailako ikasleek aurreko atetik eta ezkerreko eskaileretatik igo eta jaitsi behar dute. 4., 5. eta 6. mailakoek atzeko atetik eta eskuineko eskaileretatik igo eta jaitsi behar dute.
3. Klase hasieran puntualtasuna exigitu behar zaie guztiei. Familien betebeharra ere bada beren seme-alabak puntualtasunez jasotzea, batez ere, Haur Hezkuntzakoak edo Lehen Hezkuntzako hasierako mailetakoak direnean.
4. Behin gelan sartuz gero, ikasleak ezin izango dira bertatik irten ezta eskolako esparrutik ere, bere tutore edo dagokion irakaslearen baimenik gabe.
5. Irakasle- tutoreak bere ikasleen edozein irteera justifikaturen berri izango du beti. Gurasoak edo beste arduradun bat etorriko da beti bere seme edo alabak eskola orduetan irten behar badu.
6. Ahal den neurrian, eskola esparruan ibilgailuak sartzea ekidituko da. Beharrezkoa balitz, ibilbidea arreta handiz egingo da.
7. Korridoreetan baloiak eskuetan edo poltsa baten barruan eramango dira eta ezin izango dira erabili.

8. Eskolan segurtasuna hobetzeko asmoz, ezin izango dira erabili bizikletarik, patineterik edo antzeko ibilgailurik.
9. Portxeetan baloiak ezin dira erabili.

2.5.2. ATZERAPEN ETA HUTS EGITEAK

1. Atzerapenak edo huts egiteak irakasle edo tutorearen aurrean behar bezala justifikatuta egon beharko dira.

2.5.3. PORTAERA ETA ESKOLAKO LANAK

1. Orokorrean, ezin izango da geletan jan, programatutako ekintzetan izan ezik.
2. Portaera egokia azaldu behar da ikaskideen eta beste geletako ikasleen lana ez oztopatzeko. Era berean garrasiak, algarak, jolas erasokorrak etab, baztertuko dira.
3. Ikaskideak, irakasleak eta ikastetxeko beste langileak errespetatzea. Horretarako borrokak, irainak eta besteentzako mingarriak izan daitezken jokabideak ekidituko dira.
4. Norbaitek hitz egiten duenean, besteek entzun beharko dute. Hitz egin nahi izanez gero, txanda eskatuko da klasea ez eteteko eta besteen aldia errespetatzeko.
5. Paperak, klarion muturrak eta bestelakorik paperontzian bota behar dira ikasgelak eta jolastokia ez zikintzeko.
6. Ikastetxeko materialak eta instalazioak, bai gelakoak, bai esparru komunekoak: informatika gela, liburutegia etab, era egokian erabiltzea.

2.5.4. PORTAERA ETA ELKARBIZITZARAKO ARAU OROKORRAK

1. Orokorrean, ikasleak ikastetxeko instalazioak errespetatuko ditu, esparru bakoitzeko materialaren hondamena eta erabilera txarra saihestuz.
2. Ikasleak garbitasun arau orokorrak beteko ditu bere gorputza behar bezala zainduz.
3. Bai ikasgelak, bai jolastokia garbi mantentzen saiatuko gara, paperontziak erabiliz, gelak eta hormak ez zikinduz, eta gelak, korridoreak eta komunak zainduz eta ordenatuz.

2.6. LEHEN HEZKUNTZAKO TESTULIBURUEN KUDEAKETA SOLIDARIOA AURRERA ERAMATEKO PROGRAMEEI BURUZKO ARAUDIA

1. Honako hauek dira Programan sartzen diren ikasmaterialak:
 - Inprimatutako curriculum-materiala, berrerabil daitekeena, ikasleek banan-banan erabiltzera bideratua eta, dagozkion metodologia-orientabideei eta ebaluazio-irizpideei jarraiki, indarreko hezkuntza-arautegiak kasuan kasuko ziklo, maila eta irakasgairako ezarritako edukiak garatzen dituena.
 - Ikasleek ikasturtean zehar banan-banan erabiltzeko prestatutako curriculum materiala, dagozkion metodologia orientabideei eta ebaluazio-irizpideei jarraiki, curriculum-edukiak garatzen laguntzen duena. Hemen lan koadernoak sartuko lirateke.
2. Onuradunak: Lehen Hezkuntzako ikasleak.
3. Erabilpen aldia:
 - 1. zikloan: Urtero material guztia berrituko da.
 - 2. eta 3. zikloak: testu liburuak gutxienez lau ikasturtez erabiliko dira eta lan koadernoak urtebetez erabiliko dira.
4. Programan parte hartzea:
 - Derrigorrezkoa da baina espreski uko egiteko aukera dago. Kurtso jakin batean dagoen eta programan parte hartzeari uko egin nahi dion ikaslearen ordezkari legalak horrela jakinaraziko dio eskolari eta, horretarako dagoen aparearen barruan, uko egite ereduak igorriko dio eskolari. Eskolak Ikastetxeen Zuzendaritzari helaraziko dizkio uko egite eredu guztiak.
 - Berrerabil daitezkeen testuliburuak eta curriculum-materialak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, onuradun den ikasleak prestamoan hartuko ditu ikasturtean zehar erabiltzeko. Derrigorrezkoa da jasotako testuliburuak itzultzea kurtsoa bukatutakoan edo eskola aldatzen bada.
5. Testu liburuen itzulera:
 - Eskolak, ezinbesteko egoeratan izan ezik, iraileko lehen eskola egunean banatuko du materiala. Behin ikasturtea hasita eskolan sartzen diren ikasleek lehenbailehen jasoko dute behar dutena, beti ere, eskolan edo liburu dendetan programako materiala baldin bada.

- Hezkuntza Sailak eskatzen duen diru kopurua ordaindu ez duenari ez zaio materialarik emango. Eskolak, salbuespen egoeretan bakarrik, onar dezake familiari ordainketa epea luzatzea.
- Ez zaio materialik banatuko aurreko ikasturtean berak gaizki erabili duen materiala ordezkatzeko ez duenari.
- Errepikatzaileak diren ikasleek aurreko ikasturtean erabilitako testuliburu berberak erabiliko dituzte.

6. Testu liburuen bilketa:

- Ikasturteko azken astean tutoreek berrerabil daitezkeen testuliburuak jasoko dituzte. Hauek Testu liburuen Batzodearen eta Klaustroaren esku geldituko dira nola dauden aztertzeke.

7. Erabilera eta zaintza arauak:

- Programan parte hartzean, materialak babesteko eta zaintzeko ardura hartzen dute familiak.
- Ikasturtearen hasieran familiak plastiko gardenez, ez itsaskorra, forratuko dituzte testuliburuak eta koadernoak. Kurtso bukaeran forroa kendu eta eskolara itzuliko dituzte. Liburuen kanpoaldean ikaslearen izena eta kurtsoa daraman pegatina itsatsiko zaie.
- Guztiz debekatuta dago liburuan idaztea edo azpimarratzea. Honako hauek ere erabilera desegokitzat joko dira: edozein motatako orbanak egotea liburuetan, erabilera arruntaren ondorioz egon daitekeen baino zikinago egotea liburua, orrialdeak tolestuta, zimurtuta edo apurtuta egotea.
- Gurasoen ardura izango da beraien seme-alabek jaso dituzten testuliburu eta materialen zaintza bermatzea.
- Tutoreek sarritan gainbegiratuko dute Programaren barruan dauden materialen egoera Testulibuen Batzordeak egin beharreko kontrola errazte aldera.
- Nahita egindako hondatzea edo galtzea ematen bada, ikaslearen ordezkari legalak material hori ordezkatzera behartuta egongo dira. Antzeko ezaugarriak dituen testu liburua eskuratu ezin badute, berria erosiko dute edo dagokion dirua emango diote eskolari.
- Ikaslearen ordezkari legalak materiala ordezkatu beharrezkin ados ez badaude, Eskola Kontseiluari helaraziko diete kexa idatzia egoerari konponketa eman diezaioten.

2.7. ESKUKO TELEFONOAK ETA BESTELAKO TRESNA ELEKTRIKOAK ERABILTZEARI BURUZKO ARAUAK

2.7.1. IKASLERIA

Ikasleren batek premiazko deiren bat egin beharko balu, ikastetxeko telefonoa erabiliko luke, tutorearen edo Zuzendaritza-taldeko partaideren baten aurrean. Hori dela eta, ikasleek erabat debekatuta dute eskuko telefonoak eta beste edozein tresna elektriko erabiltzea (mp3, mp4, kontsolak...) ikastetxean bai eskola orduetan, bai atsedenaldietan, bai sarrera-irteeretan. Ikasleren batek ikastetxean tresna horietakoren bat erabiliko balu, jarraitu beharrekoak ondokoak izango lirateke:

- Ikastetxean irakasleren batek ikasleren bat harrapatzen badu eskuko telefonoa edo bestelakoren bat erabiltzen, kendu egingo dio tresna hori.
- Kendutako tresna hori Idazkaritzan utziko da norena den zehazten duen zorrotxo baten barruan (ikaslearen izen-deiturak eta zein kurtsotan ari den).
- Senitartekoei jakinaraziko zaie tresna hori kendu egin zaiola.
- Idazkaritzan ikaslearen aita, ama edo legezko tutoreari emango dio tresna hori eskolara joaten denean. Jasoko duen pertsona horrek ikastetxean semeak edo alabak tresna hori berriro ez duela erabiliko kontrolatuz.

2.7.2. IRAKASLERIA

Irakasleek ez dute eskuko telefonoa erabili behar eskola orduetan. Larrialdiren batean baino ez dute erabiliko eta debora laburrean, betiere, ikasleen arreta ahalik eta gutxien oztopatuta.

2.8. ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK ERABILTZEKO ARAUAK ETA IKASLERIA INTERNETEN SEGURU SARTUKO DELA BERMATZEKO PROZEDURA

Ikastetxe honetako Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek ordenagailu eramangarriak izango dituzte lanabes euren ikas-prozesuan. Horrela izan dadin, tresna horiek ondo erabili beharko dira eta Interneten sartu ahal izateko sarbide segurua izan beharko dute, ekainaren 6ko 25/2007 Ebazpenak zehazten duen bezala.

2.8.1. ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK NOLA ERABILI

Ordenagailu eramangarriak ikastetxean erabiliko dira eta ondoko arau hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Eskola orduetan erabiliko dira eta irakasle edo irakasle-arduradun baten ardurapean.
- b) Ordenagailuak erabiltzen diren bitartean geletan ordena handiak egon behar du, eta betiere saiatuko da zutik ez egoten eta gelan batetik bestera ez ibitzen, informatika tresneriak kolperik ez jasateko edota ez erortzeko.
- c) Ezin da ordenagailuen disko gogorrean helburu didaktikorik ez duen filmik, musikarik edo norberaren erabilerarako bestelakorik gorde.
- d) Ikasle bakoitzak ikasgaiko datuak gordetzeko karpeta bat sortuko du. Bertan ikasgaiari lotutako artxiboak gordeko ditu.
- e) Ordenagailuak ezin izango dira gelatik atera.
- f) Ordenagailuak norberak erabiltzeko dira. Beraz, ezin zaizkio ikastetxeko beste ikasle batzuei utzi.
- g) Ikastetxean ezin da sare sozialetan sartu.

Arau hauek ez betetzeak irakasle arduradunak ordenagailua kentzea eragin dezake.. Eskuko telefono eta gainerako tresna elektronikoekin modu berean jokatuko da.

2.8.2. INTERNETEN SEGURU SARTUKO DELA BERMATZEKO PROZEDURA

Ikastetxean Interneterako sarbidea uneoro irakasle arduradunak gainbegiratuta egingo da eta ikasleek sarearen erabilera librea egin dezaten saihestuko da. Ordenagailuak erabilia egingo diren jarduera guztiak ondo programatuta eta ikasleen adinerako eta mailarako egokiak izango dira.

2.9. LIBURUTEGIA ERABILTZEKO ARAUAK

Eskola ordutegian:

Liburutegia beti dago zabalik.

Irakasleek bere ikasleekin irakurtzeko edo beste ekintzak egiteko alde zuzenetan aurretiko ordutegia jarraituz erabil dezakete.

Eskolaz kanpoko ordutegian:

-Astearen behin 16:30etatik -18:00etara liburutegia libururen mailegua egiteko irekita egongo da.

Mailegu arauak:

-Etixerako maileguak luzeenez hamabost egun irauten du. Epe hori pasatuta itzuli egin behar da liburua edo mailegua gehienez beste hamabost egunetarako berritu.

-Ikasle batek libururen bat galtzen badu, beste antzeko bat erosiko du.

2.10. EBALUAZIORAKO ETA PROMOZIORAKO ARAUAK

1. Ikasturtea hiru epealditan banatuko da.

Ikasturte hasieran tutoreak ikaskuntzagai izango diren helburu eta edukien eta horien ebaluaketa irizpideren berri emango die bai familiei baita ikasleei ere.

2. Ebaluatzeko, 2008ko uztailaren 7ko agindua kontutan hartuko dugu.
3. Ikasleek eta haien guraso edo tutoreek, ebaluazio orokorra dela edo hurrengo ziklora igarotzea dela, irakasle tutoreak hartutako erabakia erreklamazioak egiteko eskubidea izango dute. Bai eta era berean, ebaluazioa egiteko erabili diren irizpideak ezagutzeko eskubidea.
 - Tutoreak ikasturtean zehar egindako behaketa erregistroa, eskola lanei buruzko oharra, idatzizko azterketak eta ebaluazio aktak erabiliko ditu bere erabakia bermatu eta justifikatzeko ikasle eta gurasoen aurrean.
 - Hartutako erabakiarekin akordiorik ez balego, Zuzendariarengana jotzeko aukera izango lukete. Horrek, Ikasketa-Buruarekin batera eta partaide diren irakasle guztiarekin, guraso eta ikaslearen argudioak eta irakaslearen datuak eta arrazoiak aztertu ondoren bere erabakia hartuko du.
 - Zuzendaritzak hartutako erabakiarekin bat ez baletoz, Ikuskaritza Teknikora jotzeko aukera izango dute behin betiko erabakia hartuko duelarik.

- Jarraibide horretan lehenengo erabakiaren aldaketarik balego, ikaslearen txosten akademikoan jasoko da.

2.11. IKASLEEN EKINTZA OSAGARRI ETA BEREZIEI BURUZKO ARAUAK

1. Ekintza osagarrien programan jasotako osagarritzko jardueretan ikasleek derrigorrez agertu behar dute. Salbuespen bakarrak gaixotasuna, medikuaren aholkua edo kontzientzia arrazoiak izango dira. Salbuespen horiei atxekitzeko gurasoek tutoreari eskaera egin behar diote horretarako arrazoiak era egokian argudiatuz.
 - Jarduera hauen egiteak zentroak ordaindu ezin duen gastu bat sortzen badu, familiei diru kopuru bat eskatu ahalko zaie.
 - Erakunde publikoek ematen dituzten dirulaguntza guztiak eskatuko dira.
2. Eskolatik kanpoko ekintza osagarri bat programatzeko, egun bat baino gehiagoko iraupenarekin (barnetegi, baserri eskola...) ondorengo baldintzak bete beharko dira:
 - Ekintza osagarri hori Ikasturteko Planean sartuta egon beharko da, klaustroak onartu ondoren.
 - Ekintza aurrera eramateko gela bakoitzeko ikasleen %80ak parte hartu beharko du, gutxienez.
 - Ikasgela batek ekintza egin dezan baldintza guztiak bete beharko ditu, beste mailako ikasgelak baldintzatu gabe.
 - Ikasgela batzu joatekotan, tutoreak joateaz gain beste irakasle bat ere joan beharko da. Irakasle horien partaidetza borondatezkoa izango da eta geratzen diren taldeetan ahalik eta eragin gutxien sortzen saiatuko da.
 - Ekintza horretara joango ez diren ikasleak, maila bereko gela batean egongo dira edo bestela aurreko edo ondorengo mailetako beste batean.

2.12. SEGURTASUN ETA HIGIENE ARAUAK

Segurtasun eta higiene arau hauexek kontutan hartuko dira:

- Ikastetxeak, helduen eskura, behar bezala hornitutako botikina izango du. Zauririk gertatuz gero, behar diren kontuak hartuko dira odolarekin inor ez zikintzeko.

Arreta handiz sendatuko da odola ez ukitzeko. Horretarako erabili eta botatzeko eskularruez baliatuko gara. Gorputz fluidoren batek lurra edo altzariak zikinduko balitu, minutu batzutan desinfektatzailez.

- Eskola infekzio-gune bihur ez dadin, haurrak ez du etorri beharko prozesu kutsakor batek jota dagoenean, ezta sukarra duenean ere.
- Eskolan bertan gaixotuko balitz, gurasoei edo larrialdietarako adierazitako pertsonari jakinaraziko genieke.
- Istripua gertatzen bada, larria izanez gero 112 larrialdietara deituko dugu. Hain larria ez denean lehenago begiratuko dugu ea aseguruia duen medikua gure eskolara etor dadila. Bai batean, bai bestean gurasoei telefonoz deituko diegu.
- Oro har, eskolan ezin diegu hurrei sendagairik eman. Salbuespen gisa, eta beste modu batean ezin bada konpondu, umearen izena, sendagaiarena, dosi zehatza eta emateko ordua azaltzen dituen osasun-txostena ekarriko diote zuzendariari. Honek, umeari sendagaia borondatez eman nahi dion irakaslea bilatuko du. Halaber, gurasoek idatziz baimenduko dute irakasle hori sendagaia emateko ardura osotik salbuesten.
- Haurrak elikagai edo botikaren bati alergia badio, gurasoek tutoreari jakinarazi beharko diote ohar baten bidez. Dena den, ikasturtero datu horiek eguneratu beharko dira.
- Haurrak zorritz kutsaturik daudenean eta, batez ere, arazoa ezagutu dugula jakinaraztean, gurasoek Osakidetzak prestatutako gomendio hauei jarraitu beharko diete:
 - Gomendagarria da haurren burua astean behin berrikustea, txanorik ez elkartrukatzea eta ile-eskuilak garbi dauden zaintzea.
 - Parasitoen kontrako produktuak (xanpuak, koloniak, lozioak) zorriak edo bartzak daudenerako dira; ez dute balio kutsapena ekiditzeko.
 - Haurraren buruan zorriak edo bartzak aurkitzen badituzu:
 - ✓ Aplikatu parasitoen kontrako produktua, prospektuko jarraibideei jarraituz.
 - ✓ Gero, garbitu eta irakuzi burua ur eta ozpinez.
 - ✓ Buruko bartz guztiak kendu. Onena eskuz egitea da.
 - ✓ 8 egun barru buruko ile-larrua berriz ikusi eta, bartzik badago, tratamendua errepikatu.
 - ✓ Familiako guztien ile-larrua ere zehatz-mehatz berrikustea komenigarria da.

- ✓ Gomendagarria da irakaslea jakitun ipintzea, ikasgelako beste guztiak zainke-tan eta higieanean erabat saia daitezen eta, beharrezkoa izanez gero, trata-mendua ere egin dezaten parasitoen kontrako produktuak erabiliz.

3. AJA ONARTZEKO ETA ALDATZEKO PROZEDURA

1. AJA aldatzeko erabakia Eskola Kontseiluak hartu beharko du eta aldaketak egiteko jarraibidea ere. Martxan jarri ondoren gabeziak aztertuko dira eta AJA aldatzeko, zuzentzeko edo zabaltzeko proposamena aurkez dezake:
 - a) Eskola Kontseiluko estamentu baten gehiengoak.
 - b) Eskola Kontseiluko partaideen heren batek.
 - c) Hezkuntza elkarteko edozeinek, aldez aurretik aldaketaren argudio eta proposamenekin idatzizko txostena aurkeztuz.
2. Batzorde Iraunkorrek Eskola Kontseiluko hurrengo bilerarako gai-zerrendan txertatuko du eta Eskola Kontseiluak erabakiko du (gehiengo soilak) eskaera hori kontutan hartzea ala ez.

I. ERANSKINA

JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA

1. JANTOKIKO EZAUGARRIAK

1.1. INSTALAZIOAK ETA JANTOKIEN KOKAPENA

Bi jantoki daude: bata, Haur Hezkuntzako eraikuntzaren aterpean kokatuta dago eta bestea Lehen Hezkuntzako eraikinaren beheko solairuan.

Bi jantokietan sukaldea, despentsa, komunak eta konketak daude. Sukaldeek ontzi garbigailua, hozkailua, jakiak beroak mantentzeko armairua, eta orokorrean jantokian beharrezkoak diren tresneriak dituzte.

Jantoki biek irteera zuzena dute ikastetxeko patiora.

1.2. JANTOKIKO ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Jantokiaren kudeaketa zuzena da, 2000ko martxoaren 22ko legearen arabera arautua II kapituluan (BOPV 2000-03-28)

Ezaugarri hauek ditu:

- Menuak: Arloko enpresa batek prestatu eta banatzen ditu.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak erabakitzen ditu ordaindu beharreko kuotak.
- Sukaldeko langileak eta begiraleak janaria prestatzen duen enpresa berak kontratatzen ditu.
- Erratioak Hezkuntza sailak ezartzen ditu.
- Bazkalkideen onarpena: Momentuz, nahi duten guztiek lekua dute. Noizbait barematu beharrean egon eta gero, honako lehentasunak jarraituko ditugu:
 - Bazkalkide bekadunak
 - Bazkalkide finkoak
 - Behin behineko bazkalkide finkoak
 - Noizbehinkako bazkalkideak
 - Eskolako irakasleak

- Jantokiko arduraduna ikastetxearen irakaslea da. Bere funtzio administratiboak Lehen Hezkuntzako Irakasle gelan, betetzen ditu. Eguneroko jangela-zerbitzuaren jarraipena egiten du; eta honen zerbitzuaren berri aurkezten dio OOGIri. Zerbitzua ematen den artean ikastetxeko instalakuntzetan egoten da eta funtzionamendu egokiaren ardura hartzen du. Bi eraikuntzetan batera egotea ezinezkoa denez, Lehen Hezkuntzako eraikinean, zuzendaria dagoenean, beraren laguntza jasotzen du.
- Eskaerak: Ohiko bazkalkideek urtero ekainean berriztu behar dute eskaera orria.

2. KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT ASPEKTU

Eskolako jantokia ez da derrigorrezko zerbitzua. Bere helburua umeari, bere familiak ezin duenean, janaria ematea eta zaintzea da.

Eskolako jantokiak, ageriko funtzioa betetzeaz gain, familiei laguntza eskaintzen die haien seme-alabak elkarbizitzaren eta elikaduraren ohitura osasuntsu eta orekatuak ikasteko eta finkatzeko.

Batzuetan horrela egiten bada ere, jantoki zerbitzuaren egitekoa ez da jaten irakastea eta dokumentu honetan jasotako baloreak, jarrerak eta arauak kontuan hartzen ditu umeen adin desberdinaren arabera.

Jantoki-instalazioek eta bazkalkideen erosotasuna umeen kopurua baldintzatzen dituzte.

2.1. MENUAK

Otorduen-zerbitzuaren kalitatea eta kantitatearen jarraipena egiten da . OOGak beharrezkoak jotzen dituen proposamenak luzatzen ditu. Familiek hiruhilabetean behin jantokiko menuen berri izango dute.

Ikasle guztiek menu berdina dute. Hala ere, enpresari menu desberdinak eskatu ahal zaizkio honako kasu hauetan: musulmanen sinesmen erlijiosoak direlako (txerririk gabeko menua edo menu barazkizalea) eta osasunaren zenbait kasutan (intolerantziak, alergiak eta gaixotasuna). Osasun arazoak izatekotan, mediku ziurtagiri bat aurkeztu beharra dago. Ziurtagiri hau ikasturte hasieran berritu behar da.

Ikastetxeak ezin izango ditu menu bereziak eman espezialistak elikagai jakin batekiko gaixotasuna, alergia edo jasanezintasuna modu seguruan zehazten ez duen arte. Alergia edo jasanezintasun hori berretsi arte elikagai bat modu progresiboan jateko prozesuaren ikuskipena eskola-jantokiaren esparruaz kanpo egingo da.

2.2. HIGIENE PERTSONALA

1. Bazkaldu baino lehen eta bazkaldu eta gero, ikasle bakoitzak eskuak garbitu behar izango ditu.

2. Haur Hezkuntzan, bazkaldu eta gero, 2 eta 3 urteko umeek -ratioa eta autonomia eza eta- ez dituzte hortzak garbituko. Haur Hezkuntzaren 2. eta 3. mailan eta Lehen Hezkuntzaren 1. mailan begiraleek hortzak garbitzen lagunduko dute. Lehen hezkuntzako 2. mailatik aurrera ume bakoitzak hortzak garbitzearen ardura bere gain hartuko du. Haur Hezkuntzako 2. mailatik aurrera (4 urte), familiek haien seme-alabak eskolan hortzak garbitzea nahi baldin badute nezeserra prestatuko diete, izena ondo idatzita eramaten dituzten gauza guztietan.

3. Haur Hezkuntzako bazkalkideek jangelan bakarrik erabiliko duten mantal berde bat eduki behar dute, izen-abizena begibistan jarrita.

2.3. JARRERA OROKORRAK:

Bazkalkideek ondorengo jarrerak zaindu behar dituzte:

1. Jangelako materialaren erabilera zuzena. Inoiz ez dira jolasteko erabiliko.
2. Gorputz-jarrera egokia.
3. Eserita egon behar dira bazkaltzen duten bitartean.
4. Edozein eskaera era egokian eta errespetu osoz egin behar da.
5. Hitz egiteko bolumena egokia izango da, garrasi egitea eta ahotsa altzatzea ekidituz.
6. Janaria ez da jolasteko ala botatzeko. Nahiz eta gustukoa ez badu ere, bazkalkidea bazkaltzeko ematen zaion janari guztia bukatzen ahaleginduko da. Plater guztietatik zer edo zer jango du. Behin eta berriz bazkalkideak ez badu horrela egiten, hurrengo platerarik gabe gera daiteke.
7. Bazkalkideen artean laguntza jarrerak bultzatu behar dira.
8. Harremanetan sortzen diren gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzen dira. Ez dira irain eta borroka onartzen.

2.4. ORDENA

1. 1.Jangelako sarrera-irteerak era kontrolatuan eta poliki egingo dira, esandako lekuetatik.
2. 2.Bazkaltzeko orduan, giro lasaian egon behar da, ahotsaren bolumena eta errespetua zainduz.
3. 3.Ezin da jantokiko ordutegi barruan eskolatik kanpo atera. Ateratzekotan, behar beharrezkoa da familien baimen idatzia. Eskolako ateak eguerdiko 12:45ean itziko dira eta 14: 45 etan irekiko dira.
4. 4.Bazkaldu baino lehen edo bazkaldu eta gero, ekintza ezberdinak burutuko dira. Pasabideak ez dira jolasteko lekuak.
5. 5.Posiblea den guztietan, bazkalkide eta begiraleen arteko komunikazioa euskaraz izango da.
6. 6.Ekintzen artean, bideoak ikusialak izango dira, beti ere euskaraz. Adin bakoitzerako egokiak diren pelikulak jantokiko arduradunak eskeiniko ditu. Ikasleek bere etxetik pelikulak ekar ditzakete baina ikusi baino lehen, begiraleak adostuko du arduradunarekin ea adin bakoitzerako egokiak diren ala ez.
7. 7.Baloiarekin patioan bakarrik jolasten da. Eskola barruan, baloia plastikozko poltsa baten barruan eraman behar da.
8. 8.Ikasleek jaten duten bitartean, ez zaie utziko eskuetan jolasik, kromorik ... edukitzen. Beste ekintzetan, etxetik ekarritako gauzak gaizki erabiltzen badituzte edo gatazkak sortzen badira haien jabetza dela eta, begiraleek kendu ahal izango dizkiete. Zenbait kasutan, familiak etorri behar dira bueltatzeko.
9. Ezin da patinetea erabili jantokiko orduetan.
10. Debekatuak daude sakeleko telefonoak.

3. JANTOKIKO JARDUERAK

Jantoki orduan, bazkaldu aurretik eta ondoren, ikasleen txanden arabera, hainbat jarduera egiten dira, ikasleak geletara joaten diren arte.

Jarduera hauek eskolako ordutegitik kanpo garatzen dira aisialdirako egokiak, jolasgarriak eta atseginak izatea bilatzen da. Eguraldi ona eginez gero, begiraleen esku uzten dugu jolastokira ateratzeko aukera.

Aipatutako jardueren helburua, ikasleen formazio integrala da, arlo sozial zein norbanakoan. Arlo sozialari dagokionez, adiskidetasuna, elkartasuna, laguntza, sexuen arteko berdintasuna eta agresibitate eza bultzatu nahi dira. Norbanako arloan bitartean,

saiatuko da bazkalkideak pozik senti daitezen norbere buruarekin, egiten dutenarekin eta taldeko portaerekin.

Hauek izan daitezke, orientazio gisa, jarduera batzuk:

3-7 urte

- *Kanpoko jolasak*: Harrapaketan, Karabin ban bon
- *Abestiak*: Urtaroko kantak, Olentzero, Tanborrada
- *Barruko jolasak*: Zapatatxo, Oihana bazterrean
- *Bideoak*: Pelikulak eta marrazki bizidunak

8-12 urte

- *Taldeko jolasak kanpoaldean*: Baloi errea, futbola, zapia...
- *Barruko jolasak*: Mahai-jolasak, Lego, Twister...
- *Bideoak*: Pelikulak eta marrazki bizidunak.
- *Liburutegia*: Ikasgela edo irakurtzeko gela modura erabil daiteke, beti ere begirale baten ardurapean. Liburutegia ordenatuta eta aulkiak bere tokian gelditu behar dira.
- *Ikasteko gela*: 3.mailatik gora ikasteko gela bat edo liburutegia dago, instalazioak eskaintzen duten aldizkakotasuna kontuan hartuta.

4. FUNTZIONAMENDU ARAUAK

1. Erabiltzaileak, adinaren arabera mahaietan banatuko dira. Zenbait momentutan, behar izanez gero, begiraleek aldaketak egin ditzakete.
2. Bigarren mailatik gora ikasleek tresnak jasoko dituzte, begiraleek agintzen dutenean.
3. Bazkalkideek denbora jakin bat izango dute bazkaltzeko. Ikasleren batek ez badu bazkaltzen bukatu, horretarako prestatutako mahai batean geldituko da denbora tarte batean, eta beti begirale baten ardurapean.
4. Ikasleen materialak eta arropa toki jakin batean utziko dira: ez dute enbarazurik egingo pasabide eta mahaietan, eta inola ere ezin dira utzi jantokian, officean edo sukaldean.

5. Jantzera berezia behar den aldietan (Olentzero, Inauteriak...) begiraleak lagunduko die ikasleei arropa janzten, hau baita egun horretako beste jarduera bat. Horretarako gurasoek edota tutoreek beharrezkoa den guztia bidaliko dute.
6. Begiraleek, janariarekiko jarrera eta garbitasun arauetara buruzko ikasle bakoitzaren oharrak lortuko dituzte. Urtean bitan txosten bat bidaliko zaio familia bakoitzari.
7. Familiek, jantokiko arduradunekin hitz egiteko aukera izango dute. Beti ere, alde aurretik hitzordua ezarri. Biltzeko eguna astearteetan 11etatik 12etara izango da.
8. Jantokira ez etortzeko abisua edo aldikako erabilera jantokiko arduradunari esan behar zaio, gutxienez, bezperan 10:30ak baino lehen.
9. Ohiko bazkalkidea jantokian gelditzen ez denean, eta aldikako bazkalkidea gelditzen denean, familiek, tutoreak **idatziz** abisatu behar dituzte .
10. Ikasleren batek jantokiko arauak etengabe errespetatzen ez baditu honako prozedura jarraituko da:
 - ✓ Ikaslearekin hitz egitea eta hezkuntza-ekintza bat aginduko zaio, edo beste motatako ekintza beharrezkoa bada. Halaber, familiarekin hitz egingo da.
 - ✓ Berriro errepikatzen bada, jantokiko batzordea elkartzeko da portaera baloratzeko. Bazkalkidea jantokitik egotzi dezakete egun batzuetarako edo betirako.

Gertatutakoa analizatzeko okerraz gain, kontuan hartuko dira asmoa, ondorioak eskolako bizitzan, izandako arriskua eskola barruan zein kanpoan eta berriro errepikatzeak ekar lezakeena.

11. Zuzendaritzak, familiekin elkarlanean, bazkalkideak jantokian ez bazkaltzeko erabakiak har ditzakete.
12. Ikasleren bat ez bada goizean eskolara etortzen **justifikatu gabe**, 15:00etan sartuko da ikastetxera.
13. Ez da botikarik jantokian emango mediku agiritik izan ezean.
14. Begiraleek helburuak onartuko dituzte, horiek errespetatuz eta errespetatuzaraziz. Honako funtzioak izango dituzte:
 - Programatutako jarduerak bere orduan aurrera eramatea.
 - Funtzionamendu arauetara buruzko jarrera bultzatzea.
 - Euskararen erabilpena sustatzea ikasleen artean.

15. Zalantzaren bat edo arautegi honetan jaso ez den egoera bat sortzen bada, Hezkuntza Saileko jantoki arautzeko ebazpena indarrean jarriko da edota ikastetxeko AJA.
16. Gurasoek edo tutoreek seme-alabei buruzko informazioa jaso nahi badute, bisita orduetan etor daitezke jantokiko arduradunarekin hitz egitera. Gauza bera egingo da arazo, kexa edo iradokizunen bat planteatu nahi bada.
17. Familiek begirale batekin hitz egin nahi badute, beraien telefono zenbakia erraztuko diote jantokiko arduradunari. Horrela, honek begiraleei pasatu eta begiraleak izango dirafamiliei deituko dietenak.

5 - JANTOKIKO ORDUTEGIA ETA TXANDAK

5.1. GOIZEKO JARDUNALDIA

2 eta 3 urteko bazkalkideek hasiko dira jantokira joaten goizeko eta arratsaldeko jardunaldia hasten denean. Irakasleak ez dira inoiz jantokian geldituko.

Haur Hezkuntzan (4 eta 5 urte), goizeko jardunaldiko egunetan, jantokiko ordutegia 13:00etatik 15:00ora izango da. Begiraleak arduratuko dira ikasleak geletatik jaso eta eta geletara eramaten. Familiek seme-alabak jaso ahal dituzte 14:45etatik 14:55etara. Eskolako atera hurbilduko dira, bertan begirale bat egongo delarik, eta seme-alaba hartzera sartuko dira, baina ezin dira eskolako aretoan gelditu.

Gurasoek, seme-alabak jaso behar badituzte (lan-txandaren aldaketa, medikurenera eramateko...) aurretik abisatu behar dute. Gurasoak kontuan izan behar dute seme-alabaren adina eta dagokion bazkari-txandak umeek bazkaria bukatua izan dezan.

Goizeko jardunaldiko egunetan, Lehen Hezkuntzako ordutegia 13:00etatik 15:00etara izango da. Bi txanda egingo dira:

1.txanda: 4. 5. eta 6.maila (13:10-13:50)

2.txanda: 1., 2., eta 3.maila (14:00-14:40)

Familiek 14:45etatik 14:55etara bitarteko denbora izango dute, ikasleak jasotzeko. Horretarako, jantokitik gertu dagoen hesira hurbilduko dira, bertan begirale bat egongo da zain.Seme alabak jaso ondoren, ezin dira eskolan geratu. Gurasoek seme-alaba, ezinbesteko kausa dela medio, jaso behar badute (lan-txandaren aldaketa, medikurenera eramateko...),

aurretik abisatu beharko dute eta kontuan hartu beharko dute seme-alabaren adina eta dagokion bazkari-txanda, umeak bazkaria bukatua izan dezan.

Etxera bakarrik doazen ikasleek, behar bezala sinatutako agiri bat aurkeztu behar dute ikasturtero, bestela ez zaie irtetzeko baimenik emango.

5.2. GOIZ ETA ARRATSALDEKO JARDUNALDIAK

Jantokia, goizeko eskolak amaitzean hasiko da eta arratsaldeko eskolak hasten direnean, bukatuko da: (12:30-15:00)

Haur Hezkuntzako jantokian txanda bakarra egongo da, hala ere, sarrera mailakatua izango da, ikasleen beharrak (afektiboak, arretakoak ...) kontuan hartuta.

Honako hauek izango dira sarrera txandak:

- 2 eta 3 urtekoak, 12:30tan sartuko dira ate nagusitik.
- 4 eta 5 urtekoak, ordu batean sartuko dira jantokiko eskubiko atetik, komunetik pasa eta eskuak garbitu ondoren.

2 urteko ikasleen kasuan, familiek 13'30tan, bazkaldu ostean, seme-alabak jaso ahal dituzte jantokiko arduradunarekin edo zuzendariarekin aurretik adostutako egunetan. Familiak semealaba zuhurtziaz hartuko du, geratzen diren beste umeak ez konturatzeko.

Jantokian, gehienez, 160 ikasle sar daitezke.

Lehen Hezkuntzako jantokian 3 txanda egingo dira jantokiaren tamaina dela eta talde handiegia ekiditzeko.

- 1. txanda: 3. eta 4. maila (12:30-13:10)
- 2. txanda: 1. eta 2.maila (13:15-14:00)
- 3. txanda: 5. eta 6.maila (14:00-14:30)

Jantoki honetan, gehienez, 270 ikasle egongo dira. Txandak 90 ikasle banatuko ditugu.

6. KUDEAKETA ORGANOAK

Honako hauek dira, jantokiko kudeaketan, laguntzen duten organoak:

- Eskola kontseilua
- Zuzendaritza
- Jantoki-batzordea
- Jantokiko arduraduna

7. JOKABIDE-MOTAK ETA JOKABIDE HORIEN ZUZENKETA

Jokabideak larritasunaren arabera sailkatu ditugu: jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkakoak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiotenak.

7.1. JOKABIDE DESEGOKIAK

Jokabide desegokiak, jantoki eguneroko ihardueren aurka doazenak eta ikasleen heziketaren kaltetan egiten direnak dira.

- A.- Otorduan garbitasun eza.
- B.- Justifikatu gabeko eta errepikatutako puntualtasun eza.
- C.- Behin eta berriro, janariari muzin egin eta mesprezatzea.
- D.- Jantokiko iharduera arrazoirik gabe eta modu larrian eteten duen edozein ekintza, bakarka zein taldeka.

Begiraleek eta, beharrezkoa izanez gero arduradunak, jokabide desegokiak zigorra zuzen ezarriko dute ondorengo ekintza hauen bidez:

- Ahozko solasaldi pribatua.
- Ekintza hezigarri egokiren bat betearazi.

7.2. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

Bizikidetzaren aurkako jokabideak jantoki zerbitzuaren iharduera arrunta era larrian eteten dituztenak dira.

- A.- Bakarka zein taldeka, jantokiko iharduera modu larrian eta arrazoirik gabe eteten duen edozein ekintza.
- B.- Ikastetxeko edozein kideren aurka egindako edozein eraso fisiko larri.
- C.- Erabilera txarragatik kalte oso larriak eragitea eskolako lokaletan edo eskola-elkarteko edozein kideren jabetzan.
 - c.1.- Jantokiko materiala ez errespetatzea.
 - c.2.- Jantokiko erabiltzaileek esekitoki edo apalategietan utzitako materiala ez errespetatzea.
- D.- Jantokiko langileek emandako aginduei edo esanei jaramonik ez egitea behin eta berriro.
- E.- Bizikidetzaren aurkako jokabideen errepikapena.

F.-Jantokiko arduradunak ikastetxeko Zuzendaritzaren jakinaren gainean jar lezaeen edozein ekintza edo gertaera eta azken honi larria iruditu litzaiokeena

Bizikidetzaren aurkako jokabidea eginez gero, jantokiko arduradunak edo, behar izanez gero, ikastetxeko zuzendariak ezarriko ditu zuzentzeko neurriak ondorengo ekintzen bidez:

-Idatzizko ohartarazpena egingo da edo ekintzan nahastutako ikaslearen gurasoekin elkarrizketa egingo da . Gurasoei arau-haustearen informazioa jaso izanaren agiria sinatzeko eskatuko zaie.

-Hutsegitea zuzentzera bideratutako hezkuntza- iharduera jarriko da.

-Hondatutako materialaren ordezeko berdina edo berdintsua itzuliko zaio jabeari.

- Samindutako pertsonari barkamena eskatuko zaio.

7.3. BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK

Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak dira jantokiko zerbitzua edo bertako langileak ezegonkortzeko nahian egindako ekintzak. Atal honetan sailkatzen dira baita jantoki barruan zein kanpoan, ikaslegoarentzat arriskutsuak gerta litezkeen hutsegiteak ere.

A.-Bakarka edo taldean egindako arrazoirik gabeko ekintzak, jantokiko iharduera era larrian hondatzen badute.

B.- Eskola-elkarteko partaideen kontra egindako indisziplina ekintzak edo irain oso larriak.

C.- Lokaletan, ikastetxeko materialetan edo eskola-elkarteko partaideen gauzetan eragindako kalte oso larriak.

D.- Eskola-elkarteko edozeinen aurka egindako eraso fisiko larria.

E.- Eskola barrutik irtetea.

F.- Ikasturte baten zehar, orokorrean, bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen errepikapena.

G.- Jantokiko arduradunak eta ikastetxeko zuzendariak O.O.G.-ren jakinaren gainean jarri eta berorrek hutsegite oso larritzat jo lezakeen edozein ekintza edo gertaera.

Ikastetxeko zuzendaritzak eta, balizko kanporatzeren baten kasuan ikastetxeko Eskola Kontseiluak, ezarriko lukete zigorra hutsegite oso larria egin izanagatik . Honako honetan datza:

- Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen ondorioz egindako lehenengo ohartarazpen idatziarekin batera, bost eguneko kanporatzea ezarriko da. Bigarren ohartarazpenak jantokitik behin betiko kanporatzea lekarke uneko ikasturterako.
- Hondatutako materialaren ordezeko berdina edo berdintsua itzuliko zaio jabeari.
- Samindutako pertsonari barkamena eskatuko zaio.

II. ERANSKINA

JOLASALDIAREN ANTOLAMENDUA:

1. HAUR HEZKUNTZA

1.1. SARRERA

Gure ikastetxean, HHko egoitzan, bi patio daude. Bat handia da, eskolako sarreratik eskumaldean kokatuta dago eta bestea txikia da eta ezkeraldetik daukan pasabide batean sarrera aurkitzen da.

Gaur egun patio txikiko pasabidea HH2 urteko ikasleen aukitxoan gordeleku bezala erabiltzen da eta giltzaz ixten da.

Patio handia errekreio garaian, bazkal ostean, sarreretan eta irteeretan erabiltzen da.

Familiak, eskola amaitu ondoren seme-alabekin bertan geratzen dira. Haurrek jolastu eta askaldu egiten dute. Familiak haien arteko harremanak izaten dituzte.

Patioan komuna dago eta umeei erabil dezaten irekita mantentzen da arratsaldeko 19:00ak arte. Familiei, haurrek erabiltzen dutenean, komunera laguntzeko eta erabilpen egokia izatea eskatzen zaie.

Bi atsedean egiten dira; goizekoa, ordu erdikoa eta arratsaldekoa hamabost minutukoa.

Atsedeen-denborak ez du irakasleen esku-hartze zuzena izaten, beraz, ikasle bakoitzak zertan jolastu eta norekin erabaki dezake.

Arazoak gertatzen direnean irakasleek, ikasleei gatazkak konpontzeko laguntza ematen diete.

Ez dugu ahaztu behar patioa espazio fisikoa izateaz gain hezitzeko une baliogarria dela, horregatik helburu batzuk ditu:

- Ikasle guztien arteko harremanak bultzatzea.
- Ikasle nagusiek txikiak laguntzea.
- Harreman sozialetarako zailtasunak izan ditzaketen ikasleak talde-jolasetan integratzea.
- Patioko eremu guztien erabilpen egokia izatea.
- Gorputz trebezia lantzea.

1.2.PATIOKO ESPAZIOAK - ANTOLAMENDUA - ALDE ARRISKUTSUAK

Errekreo garaian patio biak erabiltzen dira.

1.2.1. PATIO TXIKIA

Patio txikian: zabuak, paperontziak eta zuhaitzak daude.

1.zikloko ikasleek (50), erabiltzen dute.

1.zikloko ikasleak ez dira beti ateratzen patiora, eguraldiaren arabera.

Patioko sarrera eta irteera:

Sarrera eta irteera lerroan edo trenean egingo da.

Sarrera egiterakoan; gela bakoitzeko umeak gelako marran jarriko dira

Sarrera eta irteera:

- D2ko haurrak D gelatik pasako dira sarrera eta irteeran.
- D2ko haurrak Dko haurrak irten eta gero aterako dira patiora. Sarrera egiterakoan lehenak izango dira.
- D eta D1 eko haurrak bakoitza bere gelatik.

Berokiak:

Kurtso hasieran laguntzaileak ekarriko ditu berokiak gelara patiora joateko. Urtea aurrera doala klasearen arabera, eskegitokietara, irakaslea joango da umeekin.

1.2.1.1.ALDE ARRISKUTSUAK

1. Bi ertzetako burdinezko hesiak.
2. Txirristak.
3. Zuhaitz inguruak.
4. Ate inguruak.

Irakasleonean artean, patioa hiru zatitan banatu beharko da.

1.2.1.2. JOLASEN PLANIFIKAZIOA

Normalean jolas librea izango da nahiz eta puntualki jardueraren bat egin daiteke.

1.2.1.3. ARAU OROKORRAK

• Patioan umeak ez dira bakarrik egongo. Gela bakoitzeko tutore edo laguntzailea egongo da.

- Zuhaitzak errespetatuko dituzte.
- Patioko garbitasuna mantentzen lagundu: zakarrontziak erabili.
- Hesitik kanpora dauden pertsonak errespetatu.
- Ezin dira hesira igo.
- Zabuetan txandak errespetatu.
- Komunera heldu batekin sartuko dira.

1.2.1.4. NOLA TRATATU GERTAKARIAK

Gorabeherak izanez gero umea heldu batekin sartuko da gelara bai aldatzeko edo zaintzeko.

Hobekuntzak

Aldameneko hesia altuegia da, umeak azpitik pasatzen dira.

Bi urte D2 gelan patiora irteteko atea falta da. Bestela psiko gelatik pasatzen da eta gelako dinamika apurtzen du bi aldiz.

Txirrista berdea ez da egokia. Kendu edo hobetu.

Zuhaitzen eremua estali(zuhaitzen eremua lokatzez beteta dagoelako) edo zuhaitzak aldatu (fruituak ez irensteko).

Estolden arteko ur bidea egokitu (lauagoa izateko).

1.2.2. PATIO HANDIA

Patio handian: aterpe txiki bat, zabuak, bankuak, paperontziak, zuhaitzak, lorategia daude. Aterpean jantokia aurkitzen da.

2.zikloko ikasleek (200), erabiltzen dute.

2.zikloko ikasleak beti kaleratzen dira (elurtuta dagoenean izan ezik).

Euria egiten duenean 2.zikloko 200 ikasle aterpe txikian mantendu behar dira eta bertan ez dago zaburik. Egoera ez da oso egokia umeak bertan jolasten egoteko.

Aterpea erabiliko den egunetan irakaleek hiru eremu kontrolatuko dute:

Komunikatibitate gertu dagoena

Arlanpa aldekoa

Aterpearen barrualdekoa

1.2.2.1. ALDE ARRISKITSUAK

Jolas-orduetan bereziki zaindu beharreko lekuak:

- Komuna
- Arlanpa azpiko lekua
- Lorategia
- Eskailerak zein arlanpak (ezin da igo)

Irakasleen kokapena patioan, alde arriskitsuen arabera:

Patioan 3 irakasle egongo dira; bat komuna eta aterpea kontrolatzen, bigarrena txirristak dauden alde hori, eta hirugarrena parkea eta eskuineko aldea.

Patio zaintzak txandaka egiten dira, egunero maila bereko hiru irakasle.

Behar bereziak dituzten haurrek dagozkien hezitzaileen laguntza izango dute.

Jolasaldia amaitu ondoren irakasleak arduratuko dira:

- Patioko komuneko atea ixten, eta bertan ikasleak ez direla geratzen begiratuko dute.
- HH3 urteko ikasleak, gela bakoitzari dagokion lurreko marran, trena egiten jarriko dute.
- Patioan haurrak ez direla geratzen begiratuko dute.
- Irakasle bat izango da azkena sartuko dena goiko solairutik, arlanpara ematen duen atetik, eta atea itxi egin beharko du.

1.2.2.2. JOLASEN PLANIFIKAZIOA

Patioan jolas librea izango da, puntualki jarduera antolaturen bat egin arren.

Materialak patioan ateratzea eta horien zaintza: ikasturte honetan hasi dra eztabaidatzen materiala ateratzea komenigarria izan daitekeela. Ikasturtea aurrera joan ahala erabakiko da honen funtzionamendua.

1.2.2.3. ARAU OROKORRAK

- Natura zaintzeko zuhaitzak errespetatu.
- Arlanpan eta eskaileretan ez jolastu.
- Lorategian jolastu daiteke bustita ez dagoenean.
- Ez igo kanpoko hesian.
- Hesitik kanpora dauden pertsonak errespetatu.
- Hesitik kanpora gauzak ez bota.
- Patioko garbitasuna mantendu zakarrontziak erabiltzen.
- Komunean garbitasuna mantendu, papera eta ura era egokian erabiliz.
- Gurasoren bat hesira gerturatzen bada, hesira ez hurbiltzera. gomendatuko zaie.

1.2.2.4. NOLA TRATATU GERTAKARIAK

- **KAKA ETA TXISA** egin badute, dagokion tutorea bilatuko da berak alda dezan. Tutorea patio zaintzan badago, saiatu Laguntza irakaslea bilatzen, bestela haurrak itxaron dezala.
- **GATAZKAK:** oso larria ez bada ez zaio tutoreari komentatuko, besterik gabe patioan dagoen irakaslea arduratuko da. Garrantzi gabeko gertakaria bada saiatuko da ikaslearekin batera konpontzen (barkamena eskatu kaltetutako pertsonari, ...). Gertakaria larriagoa bada ikaslea zaintzan dagoen irakasle baten ondoan geldituko da pentsatzen edo paseoan eramango da gurekin patioa amaitu arte. Ondoren beharrezkoa ikusten bada tutoreari jakinaraziko zaio.
- **ISTRIPUA:** irakasleak eskularruak beti poltsikoan eramango ditu! Istripua oso larria ez bada patioan dagoen irakasleak lagunduko dio. Larria bada tutorea bilatu. Deitu gurasoei, eta begiratu segurua duen. Segurua badu, deitu honi ere bai. Familiak telefonoa hartzen ez badu, oso larria bada anbulantzia deituko genuke, bestela taxian lagunduko genuke haurra. Gero parte zuzendariari edo idazkariari eman beharko zaio.

1.3. BOTIKINEN KOKAPENA:

Beheko solairuan:

- 2 urteko gela batean
- patioko komunean

Goiko solairuan:

- Irakasleen bi komunetan.

Hobekuntzak

Aterpea handitzea beharrezkoa da, 200 ikasle sartzeko modukoa.

Arlanparen goikaldea babestu behar da arriskutsua ez izateko eta euria ari duenean babesa izateko.

2. LEHEN HEZKUNTZA

2.1. SARRERA

Errekreo garaia eskola-jardunadiaren %10 da. Atsedeen-denbora da, ez du irakasleen esku-hartze zuzena izaten, beraz, ikasle bakoitzak zer egin eta norekin erabaki dezake. Espazio eta denbora ez-antolatua denez, gatazkak sarriago gertatzen dira gela arruntetan baino. Bizikidetzaren arazoak sortzen direnean horiek konpontzeko bideak antolatuak izatea oso garrantzitsua da, irakasle askok hartzen baitugu parte zaintzetan.

2.2. - HELBURUAK

- Ikasle guztien arteko harremanak bultzatu eta horiek hobetu: neskek eta mutilak, ikasle nagusiak eta txikiak, jatorri desberdinetako haurrak.
- Harreman sozialetarako zailtasunak izan ditzaketan ikasleak talde-jolasetan integratu.
- Patioko espazioak ikasle guztien artean ondo banatu, ikasleen beharrak kontuan hartuta.
- Aisialdirako hainbat jolas eta aukera eskaini ikasleei.
- Ikasleei irakastea erantzunkizunak beroien gain hartu.

2.3. PATIOKO ESPAZIOAK, ANTOLAMENDUA ETA ALDE ARRISKUTSUAK

- Aurreko partea: Lehenengo eta bigarren mailakoak jolastuko dira hemen.
- Atzeko partean :Hirugarren, laugarren, bostgarren eta seigarren mailakoak jolastuko dira hemen.

Alde arriskutsuak

Ez dago arrisku handirik, baina bai hainbat toki ilun, zaintzatik apartatu xamar gelditzen direnak: gimnasio handiaren atzeko partea, pinudiaren goiko aldea, hegoaldeko horma eta komunak.

Zaintza egiten dugun irakasleok espazioa banatuko dugu alde ilunak gehiago kontrolatzeko: alde bakoitzean irakasle bat erdiko partean egongo da, eta beste bik alde ilunen zaintza egingo dute. Beste biek materialen ardura izango dute. Behar bereziak dituzten haurrek dagozkien hezitzaileen laguntza izango dute.

2.4. JOLASEN PLANIFIKAZIOA

- Hilabetean behin behin jolas bideratuak antolatuko dira
- Eskolak materiala eskainiko du patioan jolasteko:

Futbol zelaiaren futboleko jokatze eskolako baloia erabiliko da, ezingo dute haien baloia patioa jeitsi. Gauza bera beste kirolak praktikatzeko.

Futbol zelaiaren erabilerak txandaka, aurreko ikasurteotan bezala, jarraituko luke: 6 maila hasita astelehenean, bigarren mailan bukatuta ostiralean.

Baloi bigunekin futboleko aritu daitezke haien artean antolatzen badira.

Materialak patioa ateratzea eta horien zaintza:

Alde bakoitzean irakasle bat izango da materialaren arduraduna, gela bateko ikasleekin batera (egutegia markatuko da eta sarrerako kortxoetan jarriko da) Horiek arduratuko dira materiala banatzeaz eta 11etan batzeaz, edo hobeto esanda, materiala jasota gelditu dela baieztatzeaz.

Ikasle horiek eta materialen ardura duten irakasleek buelta bat emango dute patiotik dena ondo gelditu dela baieztatzeke (paperak ere jaso beharko dituzte).

Material hori ikasketa buruaren bulegoaren aurrean dagoen "zuloan" gordeko dira.

2.5. ARAU OROKORRAK

- Behin patioa jeitsita, ikasleak ezin dira geletara igo: Zerbait hartu behar badute zaintzan dagoen irakaslearen baimena izan behar dute.
- Ikasleak ezin dira gelan gelditu irakaslerik ez badago.
- Pinudiaren goiko aldea ezin da erabili.
- Patioan kanpoko komunak erabili behar dira.
- Ikasle nagusiak ikasle txikien aldera pasa daitezke paseatzen ari badira. Ezin dira pasa korrika egiten eta ez dute inoiz txikien jolasak oztokatuko.
- 1.zikloko ikasleak pasa daitezke beste aldera paseoa emateko, komunera joateko, eta futboleko jolasteko tokatzen zaien egunean.

*Euria egiten duenean:

- lehenengo eta bigarren mailakoek gimnasio handia erabiliko dute edo geletan geldituko dira mahai-jolasak egiten.

- 3.mailakoak aurreko sarreraren aterpean geldituko dira, 4.mailakoak atzeko sarreraren aterpean eta 5.eta 6.mailakoak frontoian. Hauek ere geletan gera daitezke mahai-jolasak egiten.

2.6. NOLA TRATATU GERTAKARIAK

Zaintzan dagoen irakasle baten hartuko du ardura. Garrantzi gabeko gertakaria bada, saiatuko da konpontzen ikaslearekin batera: Barkamena eskatu kalteatutako pertsona...

Gertakaria larriagoa bada (norbait jo izana, iraindu...) ikaslea zaintzan dagoen irakasle baten ondoan geldituko da errekreoa amaitu arte. Ondoren tutoreari jakinaraziko dio.

Ez dira ikasleak irakasle gelaren ondoan utziko.

Arazo handia izan bada, zaintzan degoen irakasle bat egoteaz gain, tutorea eta zuzendaritza taldeko pertsona bat egongo da, zuzendariaren bulegoan hitz egingo da ikasleekin. Gurasoei jakinaraziko zaie.